

# **BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUK EAEn**

---

2017

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	1
1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA.....	3
2. AZTERLANAREN XEDEA.....	6
3. METODOLOGIA.....	11
4. EMAITZA NAGUSIAK .....	14
4.1. HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEETAN DIHARDUTEN BOLUNTARIOAK .....	14
4.2. PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUK .....	27
5. EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA: .....	45
6. BIBLIOGRAFIA .....	51
ERANSKINAK .....	53

# SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera, **EAEko boluntariotzaren eta partaidetza sozialerako beste modu batzuen datu kuantitatiboak biltzeko azterlan** bat jarri du martxan.

Arau, plan eta estrategia askok agerian utzi dute garrantzitsua dela boluntariotza sakonago ezagutzea eta gizarte osoaren artean boluntariotzaren balioak, izaera altruista eta solidarioa, aukerak eta borondatezko lanaren bitartez herritarrek aktiboki parte hartzearen beharra hedatzea eta horren guztiaren gainean kontzientziatzea.

Duela gutxi, aipatutako sailak eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020 garatu zuten. Bertan adierazten da beharrezkoa dela *“boluntariotza eta partaidetza protagonistatzat dituzten azterlanak egitea”*, eta horri dagokiola, berariaz jasotzen du *“boluntariotzak EAEn duen egoerari buruzko estatistika-azterlana”* martxan jartzeko proposamena.

Boluntariotzaren kuantifikazioan, Euskadin *EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak*<sup>1</sup> dugu erreferentzia nagusia. 2012an egindako lana da, eta EAEn boluntario aritzen diren pertsonak kuantifikatu zituen lehenbizikoz, lehen mailako iturriez baliatuz.

5 urte igaro dira lan hori egin zenetik, eta, beraz, arrazoizkoa dirudi une hartan boluntariotzaren gainean plazaratutako zenbakiak eguneratzea. Gainera, azterlan honen helburua da partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzko datuak ere jasotzea, bestelako jarduera altruistak eta solidarioak egiten dituzten pertsonen bolumena kuantifikatzeko.

Hala, azterlan honen xedea helburu zehatz hauetan xeha daiteke:

- ✓ EAEko hirugarren sektoreko erakundeetan egun dauden boluntarioak, egon daitezkeenak eta galdu direnak kuantifikatzea, 2012an jasotako datuak eguneratzeko.
- ✓ Egungo boluntarioen profila eta gauzatzen dituzten borondatezko lanen ezaugarriak ezagutzea.
- ✓ Partaidetza sozialerako beste modu eta adierazpen batzuetan engaiatuta dauden pertsonen bolumena kuantifikatzea.
- ✓ Partaidetza sozialerako beste moduetan engaiatutako pertsonen profila ezagutzea.

---

<sup>1</sup> EDE FUNDAZIOA. EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak, 2012 Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012. Hemen eskuragai: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado\\_en\\_euskadi/es\\_situgene/adjuntos/Estudio%20sobre%20voluntariado%20en%20la%20CAPV\\_cast.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado_en_euskadi/es_situgene/adjuntos/Estudio%20sobre%20voluntariado%20en%20la%20CAPV_cast.pdf)

Dokumentuaren egiturari buruz, hauxe da azpimarratzekoa:

- Txostenaren **lehen** atalak azterlanaren oinarri den erreferentzia-esparrua aurkezten du, eta **bigarren** atalak, berriz, helburuaren jardute-mugak azaltzen ditu.
- **Hirugarren** atalak azterlanean erabilitako metodologia azaltzen du.
- **Laugarrenean**, emaitza gehienen berri ematen da, bi azpiataletan multzokatuta.
  - *Lehen azpiatalak hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario aritzen diren pertsonen datuak kuantifikatzen* ditu. Pertsona horien profil soziala eta demografikoa xehatzen du, bai eta gauzatzen dituzten borondatezko lanen ezaugarriak ere.
  - *Bigarren azpiatalaren* helburua da **partaidetza sozialerako beste modu batzuetan engeiatutako populazioa kuantifikatzea**, eta pertsona horien profila ematea. Zehazki, honako datu hauek aztertzen dira: erakundeetako kide izatea, hirugarren sektorekoak ez diren beste erakunde batzuetan borondatezko lan ordaindu gabea egitea; dohaintza ekonomikoak; jarduera sozial eta/edo politikoetan parte hartzea; komunitatean jarduera ludikoak, kirolekoak, kulturalak eta/edo hiritarrak antolatzea eta beste etxe batzuei laguntzea.
- **Bosgarren** atalak analisisian zehar jasotako emaitza nagusien laburpena eta ondorioak biltzen ditu.
- Dokumentuaren amaieran, azterlanaren erreferentziako bibliografia jasotzen da, baita eranskinak ere, erabilitako galdetegiarekin eta aztertutako unibertsoaren eta laginaren datu nagusiak laburbiltzen dituzten zenbait taularekin.

# 1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

## Boluntariotzaren definizioari buruzko eztabaida

Boluntariotzari buruzko azterlan bat egitean, kontuan hartu beharreko lehenbiziko gaietako bat da argitzea zer esan nahi dugun zehazki boluntariotzaz aritzen garenean. Boluntarioa, hirugarren sektorea, asoziazionismoa, militantzia, partaidetza soziala, mugimendu sozialak eta antzeko beste kontzeptuek nahasmena sortzen dute askoren artean. Gainera, eremu horren barruan jardura mota anitz sar daitezke, eta horren eta testuinguru eta lurralde bakoitzeko tradizio eta errealitate soziokulturalen ondorioz, boluntariotza eta partaidetza soziala ulertzeko modu desberdinak daude.

Zalantzarik gabe, kontzeptuarekin lotutako zailtasun horiek oztopo dira fenomenoak neurtzeko, herrialdeen arteko diferentziak eta antzekotasunak behatzeko eta borondatezko lana ikusarazi eta haren ekarpen soziala objektibatzen moduko parametroetan islatzeko.

Datuak sistematikoki biltzea eta herrialdeen arteko erkaketak egitea ahalbidetuko duen borondatezko lanaren definizioa ezartzeko asmoz, Johns Hopkins unibertsitatearen Ikasketazentzuetan 2011n *Borondatezko lana neurtzeko gidaliburua*<sup>2</sup> egin zuen, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Estatistika Sailarekin batera eta Nazio Batuen Boluntarioekin elkarlanean.

Proiektu horren baitan, bulego estatistiko, nazioarteko erakunde eta munduko hainbat lekutako ikertzaileek borondatezko lanari buruz eman duten zenbait definizio bildu ziren, baliagarriak izan zaizkigunak erabilitako ikuspegi erreferentzia gisa.

Nahiz eta definizio horiek desberdintasunak dituzten, badituzte elementu komunak, eta azpimarratzen dute borondatezko lana direla *komunitatearen, ingurumenaren eta gertuko senide edo bizikide ez diren beste pertsona batzuen mesedetan ordainik gabe emandako zerbitzuak edo egindako jarduerak*.

Hortik abiatuta, Lanaren Nazioarteko Erakundeak *borondatezko lana* terminoa proposatzen du, eta honela definitu: *ordaintzen ez den eta derrigorrezkoa ez den lana, hau da, pertsonen zenbait jardueratara ordainsaririk jaso gabe dedikatzen dieten lana, erakunde baten bitartez edo zuzenean, boluntarioaren bizikideak ez diren beste pertsonen mesedetan*.

Ikuspegi anglo-saxoian ez bezala —gizarte horietan pisu nabarmena du ordainik jaso gabe beste etxe batzuei laguntzeko lanak, erakunde baten bitartez egindakoaren aldean—, bai Espainian baita EAEn ere, gizartean modu altruistan parte hartzeko modu bat da boluntariotza, irabazi-asmorik gabeko erakundetan egituratutako gizarte zibil antolatuen bidez, eta horrela islatzen du indarreko legeriak.

Estatuan, Boluntariotzaren ekainaren 14ko 45/2015 Legearen<sup>3</sup> arabera, *“pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jardura multzoari deituko zaio boluntariotza, betiere jardura horiek betekizun hauek betetzen badituzte:*

- *Elkartasun-izaera ukan dezatela.*

<sup>2</sup> LANAREN NAZIOARTEKO BULEGOA. ESTADISTIKA SAILA. Borondatezko lana neurtzeko gidaliburua. Geneva: Lanaren Nazioarteko Bulegoa, 2011.

<sup>3</sup> ESPAINIA. 45/2015 Legea, ekainaren 14koa, Boluntariotzarena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2015eko urriak 15.

- *Askatasunez gauza daitezela, egiteko arrazoia obligazio pertsonal bat edo eginbehar juridiko bat izan gabe, eta borondatez onar daitezela.*
- *Ordain ekonomiko edo materialik gabe gauzatu daitezela, hargatik eragotzi gabe ekintza boluntarioa aurrera eramateak boluntarioei sortzen dizkien gastu itzulgarriak abonatzea.*
- *Boluntariotzako erakundeen bitartez garatu daitezela, programa zehatzen arabera eta Espainiako lurraldearen barruan edo kanpoan”.*

Ildo horretatik, Boluntarioei buruzko 17/1998 ekainaren 25eko Legeak<sup>4</sup> modu berean definitzen du, eta, hala, boluntariotzat hartzen du *“persona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:*

- *Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.*
- *Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharrak juridikoa ere.*
- *Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.*
- *Ordainsaririk gabeak izatea.*
- *Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeko.”*

Hala eta guztiz ere, azken urteotan boluntariotzari buruzko beste ikuspegi batzuk eta hura ulertzeko modu berriak sortu dira. Fenomenoaren ikuspegi irekiago eta zabalago batean oinarritzen dira, eta hirugarren pertsonen zuzenean eta modu altruistan laguntzeko beste modu batzuk, mugimendu sozialetan parte hartzeko modu berriak, etab. barne hartzen dituzte.

Mugak ezarri eta boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren irismena zehazteko asmoz, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren lantalde iraunkorrak bi kontzeptuen definizioa proposatu zuen Boluntariotzaren XV. Kongresu Estatalaren baitan (Barakaldoko BEC, 2012ko azaroa), partaidetza sozialeko moduek borondatezko lanarekin dituzten konexioak mugatuta. Ildo horretatik, uste dute partaidetza soziala eremu zabala dela, eta, horren barnean, borondatezko ekintzak partaidetza moduetako bat direla, baina ez bakarrik. Gainera, azpimarratu zuten partaidetzak eta boluntariotzak elementu komun asko dituztela, baita borondatezko ekintzaren berezko ezaugarriak ere. Partaidetza sozialaren definizio hau proposatu zuten:

*“Partaidetza sozialtzat hartzen da eremu publikoan zuzenean edo zeharka eragin nahi duen edozein jarduerak, pertsonen ekintza eta bide desberdinetatik burutzen dutena, nor bere izenean edo edozein herritar-elkarte motaren bitartez.*

*Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziatik dator beti, eta erantzukizuna eta gizartearen garapenean esku hartzeko eskubidea oinarri izanik, kontzientzia horrek zenbait pertsona komunitatea eraldatzera eta hobetzera bideratutako ekintza hiritar mota guztietan aktiboki parte hartzera eramaten ditu.*

---

<sup>4</sup> EUSKADI. 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herri Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko uztailaren 13koa.

*‘Komunitatearen garapena’ da partaidetza sozial horren helburua eta bitartekoa, eta eragile sozial askoren ekintzen bidez burutzen da garapen hori, ehun sozialaren sorrera, kontzientziazio soziala eta herritarren arteko harremana eta elkarrekintza bultzatuz. Hala, funtsezko elementu bilakatzen da, gizarte zibila egituratzeko eta politikan eragiteko, ekintza kolektibotik eratorritako eskakizunak eta proposamenak bideratzen dituelako”.*

Boluntariotzaren definizio hau proposatu zuten:

*“Boluntariotza partaidetza sozialerako bideetako bat da, eta gizartearen ekimenetik sortzen da. Barne hartzen ditu herritarrek askatasunez eta partaidetza antolatuz, solidario, doako eta egonkorren bitartez gauzatzen dituzten jarduerak, gizarte osoaren bizi-baldintzak hobetze aldera.*

*Boluntariotzak gizartearen beharrei erantzuten die, jarrera barneratzailea, kritikoa, sortzailea, osagarria eta proaktiboa eta inguruarekiko konpromiso pertsonala eta kolektiboa ardatz izanik.*

*“Boluntariotza” partaidetza sozialerako modu bat da, partaidetza sozialaren adierazpen zehatz bat, alegia; baina ez da bakarra.”*

Geroago, termino horien kontzeptu-eremuak mugatzeko mintegi tekniko batean, Zuberok eta Susok<sup>5</sup> proposatu zuten, boluntariotzari buruz hitz egin ordez, boluntariotzei buruz aritzea, pluralean. Izan ere, adierazpen anitz egon daitezke eremu horren barruan.

Pluraltasunaren ideia hori bisualki islatzeko asmoz, “boluntariotzaren etxea” (edo boluntariotzen etxea) erabiltzen dute. Hala, boluntariotzarako espazio handia aurkezten dute, definizio “handi”, zabal eta barneratzailea oinarri hartuta. Gero, etxe horren barnean “gelak” edo espazioak zehazten dira, eta, horietatik abiatuz, borondatezko ekintzaren benetako pluraltasuna islatzen duten definizio “doituagoak” eta zehatzagoak. Horrez gain, “espazio komunak” edo partekatutako ere badaude, eta borondatezko ekintzaren adierazpen desberdinak elkartzen dira horietan (prestakuntzarako, erkatzeko, elkarrengandik ikasteko edo elkarrekin ekiteko).

Adierazpen horren bitartez, asmoa da boluntario izateko eta boluntariotza gauzatzeko moduen pluraltasuna aitortzea eta positiboki baloratzea. Borondatezko ekintzaren errealitate desberdinak lotzeko moduak aurkitzearen alde egiten dute, modu horiek baztertu eta hierarkizatu gabe eta baliabideak eta esperientziak partekatuz.

Halaber, borondatezko ekintza partaidetza sozialerako beste modu batzuekin lotzearen alde egiten dute, administrazioak eta partaidetza horien errealitateak modu horiek boluntariotzaren barruan sartzen ez dituzten arren. Mugimendu sozialez aritzen dira, baita partaidetzarako modu berriez ere (Hipotekak kaltetutakoen plataforma, 15-M, globalizazioaren kontrako mugimendua).

---

<sup>5</sup> Suso, A., Zuberok, I. Conclusiones del Seminario Técnico Voluntariado y Participación Social: Delimitación Conceptual, 2014. Hemen eskuragarri: <http://www.plataformavoluntariado.org/ARCHIVO/documentos/recursos/voluntariado-y-participacion-social-delimitacion-conceptual-seminario-tecnico-conclusiones.pdf>

## 2. AZTERLANAREN XEDEA

Sarreran adierazi dugun bezala, azterlan honen helburua da EAEko populazioaren **boluntariorzari eta partaidetza sozialerako beste modu batzuei** buruzko informazio kuantitatiboa jasotzea.

### Hirugarren sektoreko erakundeetan diharduten boluntarioak

Azterlan honen ondorioetarako, **boluntariorzaren** definizioa Boluntarioei buruzko 1998ko ekainaren 25eko Legean jasotakoa izango da<sup>6</sup>:

“Pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jarduera multzoari deituko zaio boluntariorza, betiere jarduera horiek betekizun hauek betetzen badituzte:

- Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariorza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharr juridikoa ere.
- Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.
- Ordainsaririk gabeak izatea.
- Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeara.”

### Partaidetza sozialerako beste modu batzuk

Horrez gain, partaidetza sozialari dagokionez, Euskal Kontseiluaren lantalde iraunkorrak, Boluntariorzaren Estatuko XV. Kongresu proposatutako definizioa izango dugu kontuan (Barakaldoko BEC, 2012ko azaroa)<sup>7</sup>:

*“eremu publikoan zuzenean edo zeharka eragin nahi duen edozein jarduera, pertsonak ekintza eta bide desberdinetatik burutzen dutena, nor bere izenean edo edozein herritar-elkarte motaren bitartez.*

*Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziaz dator beti, eta erantzukizuna eta gizartearen garapenean esku hartzeko eskubidea oinarri izanik, kontzientzia horrek zenbait pertsona komunitatea eraldatzera eta hobetzera bideratutako ekintza hiritar mota guztietan aktiboki parte hartzera eramaten ditu.*

*Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziaz dator beti, eta erantzukizuna eta gizartearen garapenean esku hartzeko eskubidea oinarri izanik, kontzientzia horrek zenbait*

<sup>6</sup> 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa (1998/07/13ko EHAA).

<sup>7</sup> Partaidetza sozialari eta boluntariorzari buruzko lantaldea: Definizio argia eta partekatua lortzeko bidean. Boluntariorzaren XV. Kongresu Estatala. Euskadi, 2012



*pertsona komunitatea eraldatzera eta hobetzera bideratutako ekintza hiritar mota guztietan aktiboki parte hartzera eramaten ditu.”*

Zehazki, partaidetza sozialaren modu edo adierazpen hauek aztertu ditugu:



#### **A. Erakundeetako kide izatea**

Informazioa bildu den eremuetako bat da elkarte edo talde desberdinetako kide eta afiliatu izatearena, kideztat hartuta erakunde bateko bazkideak eta/edo afiliatuak. Zehazki, adierazle hau hartuko da kontuan partaidetza sozialerako modu honetan:

- *Erakundeetako kide izatea (bazkideak eta/edo afiliatuak)*

#### **B. Borondatezko lan ordaindu gabea hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetan**

Partaidetzarako modu honetan, **hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetan borondatezko lan ordaindu gabea egiten duten pertsonen** bolumenari buruzko informazioa jaso nahi dugu. Hain zuzen ere, parroketan, zentro erlijiosoetan, sindikatu edo lanbide-elkargoetan eta/edo alderdi politikoetan borondatezko lana egiten duten pertsonen ari gara. Azpimarratu behar honakoa aztertuko dela zehatz-mehatz:

- *Parroketan, zentro erlijiosoetan, sindikatu edo lanbide-elkargoetan eta/edo alderdi politikoetan borondatezko lan ordaindu gabea egiten duten pertsonak.*

### C. Erakundeei dohaintza ekonomikoak egitea

Kontuan hartu dugun beste partaidetza modu bat da erakundeei **dohaintza ekonomikoak** egitea. Azpiatal honetan, hauek dira aztertu behar diren adierazleak:

- *Erakunde desberdinei dohaintza ekonomikoak egitea*
- *Dohaintza ekonomikoen erregulartasuna/maiztasuna*

### D. D. Jarduera sozial eta/edo politikoetan parte hartzea

Aztertu nahi izan dugu ere **euskal populazioak jarduera edo ekimen sozial eta/edo politikoetan duen inplikazioa**. Zehazki, gai hauen gainean egin dugu galde:

- *Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea (banderak balkoietan, profil-irudia sare sozialetan, etab.)*
- *Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta.*
- *administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskakizunak sinatzea edo babestea, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak tarteko (eskakizunak sortzea edo sinatzea, horiek online, aurrez aurre, ohiko postaz, sare sozialetan edo bestelakoetan izan)*
- *Manifestaldietan edo kontzentrazioetan parte hartzea*
- *Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak, ordainik jaso gabe*
- *Hedabideetan iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adieraztea (sare sozialetan, blog pertsonaletan, zuzendariei bideratutako gutunetan, etab. informazio politikoa eta soziala ematea)*
- *Grebetan parte hartzea*
- *Etxean pertsonak hartzea (Txernobyngo haurrak, errefuxiatuak...)*

### E. Komunitatean jarduera ludikoak, kirolakoak, kulturalak eta/edo hiritarrak antolatzen parte hartzea

Hurrengo azpiatalak biztanleek **komunitatean** (auzoan, herrian edo udalerrian) **jarduera ludikoak, kirolakoak, kulturalak eta/edo hiritarrak antolatzen** zer-nolako partaidetza duen ikertzen du. Hain zuzen ere, honako elementuak aztertu dira:


- *Auzoan/herrian/udalerrian jarduera ludikoak, kirolakoak eta/edo kulturalak antolatzen parte hartzea, besteak beste: futbol-talde bat entrenatzea edo egiten diren bestelako kirol-jarduerak; egun seinalatuetako momentu berezietan parte hartzea, hala nola auzoko jaiak, Olentzeroa eta san joan jaiak; jarduera antolatu batean monitore aritzea...*
- *Auzoan/herrian/udalerrian jarduera hiritarrak antolatzen parte hartzea, esaterako: auzolana, administrazioak sustatutako partaidetza-prozesuak (barruti-kontseiluak, kasu), larrialdietan laguntzea, babes zibila, ekitaldi handiak...*

## F. Beste etxe batzuei laguntzea

Azkenik, aztertu nahi izan dugu biztanleriak zer inplikazio duen beste etxe batzuetan laguntza ematean. Atal honek jasotzen du **biztanleriak familiaz kanpoko pertsoneri laguntzen ematen duen denbora, ordainik gabe, obligaziorik gabe eta erakundeetatik at**. Nabarmendu behar da laguntza mota hau dela beste partaidetza sozialek ezaugarritzat duten alderdi kolektiboa eta antolatua betetzen ez dituen bakarra. Hain zuzen ere, honako alderdi hauek aztertu dira:

- *Etxeko lanetan laguntzea (arropa garbitzea, janaria prestatzea, lisatzea, jostea, etab.)*
- *Hirugarren bat zaintzen laguntzea, besteak beste: adinekoak, adingabeak (esaterako, gaixorik dauden haurrak zaintzea gurasoak lanera joan behar direnean), maskotak zaintzea (adibidez, bidaiaren bat egin behar denean), etab.*
- *Jardueraren batera laguntzea eta bisita egitea, adibidez: erosketak edo izapideren bat (bankuan, administrazioan...) egiten laguntzea, medikuarenera joatea, pertsonen garraioa, etab.*
- *Etxeko gauzak konpontzen laguntzea (tantak isurtzen dituen txorrota, zarata egiten duen ate bat... konpontzea)*
- *Laguntza ekonomikoa partikularrei (dirua mailegatzea)*
- *Aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzeari buruzkoa (aholkularitza juridikoa edo ekonomikoa, fakturak kudeatzea, etab.)*

**BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUK EAEn 2017**



*“Pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jarduera multzoari deituko zaio boluntarioritza, betiere jarduera horiek betekizun hauek betetzen badituzte:*

- *Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.*
- *Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionarioritza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharrak juridikoa ere.*
- *Irabazi-asmorik ez duten erakunde bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.*
- *Ordainsaririk gabeak izatea.*
- *Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeko.”*

*(Boluntarioei buruzko Euskal Legea)*

*“Partaidetza sozialtzat hartzen da eremu publikoan zuzenean edo zeharka eragin nahi duen edozein jarduerak, pertsonak ekintza eta bide desberdinetatik burutzen dutena, nor bere izenean edo edozein herritar-elkarte motaren bitartez.*

*Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziatik dator beti, eta erantzukizuna eta gizartearen garapenean esku hartzeko eskubidea oinarri izanik, kontzientzia horrek zenbait pertsona komunitatea eraldatzera eta hobetzera bideratutako ekintza hiritar mota guztietan aktiboki parte hartzerako eramatea ditu.”*

## 3. METODOLOGIA

Azterlanaren helburuak lortzeko, **metodologia kuantitatiboa** aukeratu dugu. Metodoak mundu sozialaren fenomenoak deskribatzea eta azaltzea du helburu, objektiboki existitzen diren orokortzeetara iristeko asmoz, eta ezagutza sistematiko egiaztagarri, alderagarri, neurgarri eta erreplikagarriarekin lotuta dago.



### Telefono bidezko galdetegia

**EAEn bizi den 18 urte eta goragoko populazioari telefono bidezko galdetegia** egin zitzaion. Horretarako, laginketa polietapikoa egin zen, eta ausaz hautatu ziren lurralde bakoitzeko bigarren unitateak (udalerrriak) eta azken unitateak (pertsonek), guztizko lagina lortu arte.

### UNIBERTSOA ETA LAGINA

- Lagina **1.650 pertsonak** osatzen dute, eta, beraz, esan dezakegu estatistikoki adierazgarria dela eta datuak EAEko biztanleriara estrapola daitezkeela, % 95eko konfiantza-mailarekin eta +/- % 2,41ko perdoiarekin.
- Xedea izan da aztertu beharreko populazio osoaren lagin adierazgarria lortzea, unibertsoarekin erlazio proportzionala izango zuena, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta udalerrriaren tamainaren arabera<sup>8</sup>.
- Hala ere, zenbaitetan, laginaren tamaina ez da nahikoa izan, zorrotasuna eta fidagarritasuna bermatzeko, datuak oro har kontuan hartzen ez direnean. Ondorioz, haztapenak egitea erabaki dugu, ziurtatzeko profil desberdinen pisua bat datorrela unibertsoan duen benetako pisuarekin<sup>9</sup>.

### LANDA-LANA

- Landa-lana 2017ko azaroan eta abenduan zehar burutu zen. Aintzat izanik pertsonak haien etxeetan zeudela, deiak ordu-tarte desberdinetan egin ziren, asteko egun guztietan zehar, igande eta jaiegunetan izan ezik.

---

<sup>8</sup> Nahiz eta landa-lanean sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta udalerrriaren tamainaren aldagaiak kontrolatzen saiatu ginen, datuak biltzen amaitutakoan, ikusi genuen laginak errepresentazio pixka bat txikia zuela 40 urtetik beherako pertsonen kasuan, batez ere gizonezkoetan, baita Gipuzkoan bizi zirenen kasuan ere. Horregatik, haztapen-faktore zuzentzaileak aplikatu dira analisisian, eta, hala, hiru aldagai horietan oreka berreskuratu dugu. Eranskinean, unibertsoa eta lagina estratuetan nola banatuta dauden jasotzen duten taulak ikus daitezke.

<sup>9</sup> Balio absolutuak zenbatesteko, laginaren datuak populazioaren multzora ustiatu dira. Balioak modu ahalik eta zehatzenean inferitu ahal izateko, laginaren pertsona bakoitzak zenbat biztanle ordeztzen dituen adierazten duten zuzenketa-faktoreak (goratzaileak) erabili dira. Hala, biztanleen artean erakundeetan denbora dedikatzen duten pertsonen kopurua = x laginaren barruan erakundeetan denbora dedikatzen duten pertsonen kopurua (biztanleria osoa/laginaren populazioa). Goratzaileak kalkulatzeko, kontuan hartu dira sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren aldagaietatik eratorritako estratuak. Guztizko zifren zenbatespena egiteko, zenbatespen partzialak batu dira, estratu horiek kontuan izanik. Eranskinean, goratzaileen datuak ikus daitezke.



## Iturri osagarriak bildu eta aztertzea

Teknika honen helburua izan da gaia ezagutzea eta informazioa lortzea, erreferentziako esparru bat ezarri ahal izateko. Azken kapituluan kontsulta daitezke erabilitako erreferentzia bibliografikoak.

Dokumentazioa identifikatu eta berrikustean, informazio egoki eta eguneratuaren arabera kokatu ahal izan dugu ikerketaren testuingurua, eta galdetegiaren edukiak zehazteko aukera eman digu. Halaber, erreferentziako ikerlan zaharragoen datuek analisisa aberastu dute.



## Datuen analisi konparatiboa

Analisian zehar, hainbat iturri erabili dira, azterlan honetan jasotako datuak erkatu eta kontrastatzeko. Hona hemen kontuan hartu diren erreferentzia konparatibo nagusiak:

### EAEn:

- *EAEko boluntariotzari buruzko azterlana*, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2012an garatutakoa<sup>10</sup> EAEko lurralde-eremua hartzen duen boluntariotzari buruzko lehen lana da. Ñabartu behar da azterlan hori hirugarren sektoreko erakundeen bidezko boluntariotza antolatura mugatzen dela eta kanpoan uzten dituela oraingo azterlanean kontuan hartu ditugun partaidetza sozialeko beste modu batzuk.
- *58. Euskal Soziometroa. Kultura Demokratikoa*<sup>11</sup>. Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015ean plazaratu zuen lana, eta erreferentzia konparatiboak atera ditugu bertatik, EAEko biztanleriaren talde sozialen eta elkarten kidezari dagokionez.
- *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria*<sup>12</sup>. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak 2015ean egindako dokumentua. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren barruan dauden erakundeen gaineko txosten bat da.

### Estatuan:

- *Ekintza boluntarioa 2017 urtean (Datuen aurrerapena)*<sup>13</sup> eta *Ekintza boluntarioa 2016 urtean*<sup>14</sup>. Espainiako Boluntariotzaren Plataformak urtero egiten ditu azterlan horiek;

<sup>10</sup> Op. Cit.

<sup>11</sup> ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. Ekintza boluntarioa 2017 urtean. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2017. Hemen eskuragarri:  
<http://www.plataformavoluntariado.org/noticias/4088/Nuevos/datos/sobre/el/voluntariado/en/2017>

<sup>12</sup> BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2015. Hemen eskuragarri:  
[http://www.3sbizkaia.org/archivos/documentos/enlaces/1823\\_1\\_libroblancotsseuskadi2015.pdf](http://www.3sbizkaia.org/archivos/documentos/enlaces/1823_1_libroblancotsseuskadi2015.pdf)

<sup>13</sup> ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. Ekintza boluntarioa 2017 urtean. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2017. Hemen eskuragarri:  
<http://www.plataformavoluntariado.org/noticias/4088/Nuevos/datos/sobre/el/voluntariado/en/2017>

<sup>14</sup> ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. Ekintza boluntarioa 2016 urtean. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2016. Hemen eskuragarri:  
<http://www.plataformavoluntariado.org/ARCHIVO/documentos/recursos/solidaridad-y-juventud-en-espana-la-accion-voluntaria-en-2016.pdf>

bertan kuantifikatzen dira Espainian oro har zenbat biztanlek laguntzen duten GKEetan eta, bereziki, borondatezko lana egiten dutenak.

- *2017ko azaroko barometroa*, Ikerketa Soziologikoen Zentroarena (CIS)<sup>15</sup>. Barometroak CISek argitaratu dituen azken datuak biltzen ditu, Espainiako biztanleriak erakunde eta taldeetan duen kidetza eta parte-hartzeari dagokienez. Lanak gizarte espainiarrek partaidetza sozialerako eta/edo politikorako beste adierazpen batzuetan (esaterako, odola ematea) duen inplikazioa ere jasotzen du.
- *2015eko apirileko barometroa*, Ikerketa Soziologikoen Zentroarena (CIS)<sup>16</sup>. Barometro honetatik zenbait datu konparatibo atera ditugu gizarte espainiarrak ekintza sozial eta/edo politikoetan parte hartzeko dituen beste modu batzuei dagokienez (besteak beste, zenbait produktu erostea edo erosteari uztea arrazoi politiko edo etikoengatik edo ingurumena laguntzeagatik, grebetan parte hartzea eta manifestaldietara bertaratea).
- *2011ko martxoko barometroa*, Ikerketa Soziologikoen Zentroarena (CIS)<sup>17</sup>. CISek Boluntariotzaren Europako Urtean ateratako barometro berezia da. Lehenbizikoz, borondatezko lan ordaindu gabea egiten duten pertsonen kopuruari eta espainiarrek beste etxeei emandako laguntzari buruzko galderak txertatu zituen (adibidez, familiakoak ez diren pertsonak zaintzea edo laguntzea ordainik jaso gabe).

#### Europan:

- *373. Flash Eurobarometroa. Demokrazia parte-hartzailearekiko konpromisoa*<sup>18</sup>. 2013ko martxoan argitaratutako azterlana da, eta Europako biztanleek irabazi-asmorik gabeko talde eta erakundeetan eta bestelako erakundeetan (sindikatuak eta lanbide-elkargoak, kasu) duten kidetza jasotzen du.
- *Europako Parlamentuaren Eurobarometro Berezia, 75.2. Boluntarioak*<sup>19</sup>. 2011. urtean egin zen, Boluntariotzaren Europako Urtea zela medio, eta europar biztanleek boluntariotza-jardueretan duten partaidetza aztertu zuen.

<sup>15</sup> CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3195. zenbakidun azterlana. 2017KO AZAROKO BAROMETROA. Hemen eskuragarri: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3180\\_3199/3195/es3195mar.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3180_3199/3195/es3195mar.pdf)

<sup>16</sup> CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3080. zenbakidun azterlana. 2015eko apirileko barometroa. Hemen eskuragarri: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3080\\_3099/3080/es3080mar.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3080_3099/3080/es3080mar.pdf)

<sup>17</sup> CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 2864. zenbakidun azterlana. 2011ko martxoko barometroa. Hemen eskuragarri: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2860\\_2879/2864/Es2864.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2860_2879/2864/Es2864.pdf)

<sup>18</sup> EUROPAKO BATZORDEA. TNS Political & Social. 373. Flash Eurobarometroa. *Demokrazia parte-hartzailearekiko konpromisoa*. Brusela: Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia, 2013. Hemen eskuragarri: <http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/FLASH/surveyKy/1118>

<sup>19</sup> EUROPAKO BATZORDEA. Europako Parlamentuaren Eurobarometro Berezia, 75.2. Boluntarioak. Brusela: Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia, 2011. Hemen eskuragarri: [http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2011/juillet/04\\_07/eb%2075\\_2\\_%20synthese%20analytique%20benevolat\\_es.pdf](http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2011/juillet/04_07/eb%2075_2_%20synthese%20analytique%20benevolat_es.pdf)

## 4. EMAITZA NAGUSIAK

### 4.1. HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEETAN DIHARDUTEN BOLUNTARIOAK <sup>20</sup>

**Zenbat pertsona aritzen dira boluntario hirugarren sektoreko erakundeetan?  
Zenbat pertsona boluntario izan dira? Zenbat pertsona daude boluntario izateko prest?**

Bildutako datuek erakusten dute **Euskadiko biztanleen % 13,4 boluntario izan dela hirugarren sektoreko erakunderen batean azken urtean** (241.907 pertsona gutxi gorabehera). Datu hori 2012an erregistratutakoa baino handiagoa da, urte hartan biztanleen % 8,6 aritu baitzen mota horretako erakundeetan<sup>21</sup>.

**Euskadiko biztanleen % 13,4 boluntario izan da hirugarren sektoreko erakunderen batean azken urtean, 2012an erregistratutakoaren gainetik (% 8,6).**

EAEko datuak Boluntariotzaren Plataformaren Behatokiak 2017an estatuan jasotako datuen gainetik daude<sup>22</sup>; izan ere, azken horrek kalkulatu du Espainiako populazioaren % 8,5 dagoela jarduera mota horiekin engaiatuta gaur egun.

**EGUN DAUDEN, IZAN DAITEZKEEN ETA GALDU DIREN BOLUNTARIOEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK. % ETA ZENBATESPENA ABSOLUTUETAN. 2017 ETA 2012<sup>23</sup>**

	2017		2012	
	%	Zenbatespena absolutuetan	%	Zenbatespena absolutuetan
<b>Egun dauden boluntarioak</b>	13,4	241.907	8,6	157.493
<b>Boluntario izan daitezkeenak</b>	22,0	329.173	11	202.325
<b>Galdu diren boluntarioak</b>	10,0	180.732	9,8	178.965

Bestalde, azken urtean erakundeetan lagundu ez arren aurreko urteetan aritu diren pertsonen bolumena EAEko biztanleriaren % 10 inguru izan liteke (% 9,8 izan zen 2012an). Zenbaki absolututan, 180.732 boluntario "galdu dira", gutxi gorabehera.

**Galdutako boluntarioek biztanleriaren % 10 osatzen dute, eta boluntario izan**

Horrez gain, % 22 inguru "izan daitezke" boluntario (hau da, ez dira gaur egun erakunde horietan aritzen, baina etorkizunean parte hartzeko prest egon litezke), eta 2012an erregistratutako datuaren bikoitza da hori (% 11). Talde horren barruan, % 5,2 inguru parte hartzeko oso prest dago (78.324 pertsona).

Lurralde historikoen arabera jasotako datuak aztertzean, ez dugu alde handirik ikusi, nahiz eta Gipuzkoak boluntariotza-maila handiagoak dituen erakunde horietan (% 14). Bizkaiak eta

**HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEETAN ARITZEN DIREN EGUNGO BOLUNTARIOEN PROPORZIOA. LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKO EMAITZAK. % 2017**

<sup>20</sup> Gogoratu behar da boluntario izateko modu hori bat datorrela Boluntarioei buruzko Euskal Legeak jasotzen duenarekin.

<sup>21</sup> Kontuan hartu behar da tasen arteko aldearen arrazoietakoa bat izan litekeela datuak modu desberdinean bildu direla inkesta batean eta bestean. Izan ere, 2012an, pertsonen zuzenean galdetu zitzaizkien inkestaren unean irabazi-asmorik gabeko erakunderen batean boluntario aritzen ziren, eta oraingo honetan, hasieran azaldu genuen jakin nahi genuela zenbat denboraz aritu diren erakunderen batean azken urtean. Galdetzeko modu horrekin, pertsona gehiagok izan du baiezkoko emateko joera, batik bat parte-hartze zehatzei edo aldizkakoiei dagokienez.


<sup>22</sup> Op. Cit.

<sup>23</sup> Emaizta absolutuen zenbatespena Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren arabera egin da, jaiotza-urteari, lurralde historikoari eta sexuari erreparatuta. 2016/01/01.



Arabak indize txikiagoak baina oso antzekoak dituzte (% 13,2 eta % 13, hurrenez hurren).

2012. urtearekin erkatuta, Gipuzkoan izandako hazkundera da diferentziarik esanguratsuena, urte hartan indizea % 8,2 zelako.



EGUN DAUDEN, IZAN DAITEZKEEN ETA GALDU DIREN BOLUNTARIOEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. %. 2017 ETA 2012

	2017			2012		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Egun dauden boluntarioak</b>	13,2	13,0	14,0	10,4	8,4	8,2
<b>Boluntario izan daitezkeenak</b>	20,9	21,3	23,6	14,3	11,6	8,7
<b>Galdu diren boluntarioak</b>	12,9	10,9	7,2	11,8	10,2	8,2

### Zer aldagaik eramaten gaituzte hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario izatera?

Erakunde horietan boluntario aritzen diren gizonen eta emakumeen proportzioa oso antzekoa da (% 13,6 eta % 13,1, hurrenez hurren). Datuek erakusten dute tasak parekatuta daudela 2012tik. Aipatu behar da boluntarioen % 5,24 aldizka aritzen dela; hau da, momentu zehatzetan parte hartzen duela, eta beste % 8,15ek ohikotasunez parte hartzen duela erakundeetan.

Datuek erakusten dute **18 eta 29 urte bitarteko gazteak direla boluntariotza-tasarik handienak** dituztenak. Zehazki, % 29,9koa da tasa. Ostera, **65 urte edo gehiagoko**en taldeak ditu **tasarik txikienak** (% 7,5).

Boluntariotza-tasetan oreka dago gizonen eta emakumeen artean. Adinaren arabera, gazteak dira tasa altuena dituztenak.

Emaitza horiekin bat, **ikasleen tasak beste guztiak gainditzen ditu** (% 30,1), eta horren ondoren, langabetuena dugu (% 16,6). Joera berdina ikusi zen 2012ko azterlanean ere.

**Ikasketa-maila altuena dutenen artean (gradu-ikasketak, lanbide-heziketa edo unibertsitate-ikasketak) tasak handiagoak** dira, prestakuntza-maila txikiagoa dutenen artean baino. 2012ko datuek ere joera hori erakutsi zuten.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LAN-EGOERAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERAKOAK. 2017 ETA 2012. %

		2017	2012
<b>Hirugarren sektoreko erakundeetan diharduten boluntarioak, guztira</b>		<b>13,4</b>	<b>8,6</b>
SEXUA	Gizona	13,6	7,4
	Emakumea	13,1	9,7
ADINA	18-29 urte	29,9	17,2
	30-39 urte	10,7	7
	40-49 urte	14,4	6,8
	50-64 urte	11,9	8,9
	65 urte edo gehiago (*)	7,5	5,5
LAN-EGOERA	Landuna	14,4	8,3
	Langabea	16,6	9,7
	Ikaslea	30,1	17,6
	Bestelako ez-aktiboa	9,3	6,6
IKASKETA-MAILA	Ikasketarik ez	8,6	2,0
	Lehen hezkuntza	5,3	4,1
	Bigarren hezkuntza	15,8	11,4
	LH	15,1	7,5
	Gradu-ikasketak	16,8	13

Oharra (\*): Kontuan izan behar da tasa horiek guztiak adin-tarte horretako populazio osoaren gainean kalkulatu direla, eta kasu honetan, oso adineko pertsonak ere sartzen direla tartean. Hala, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak beste adin-tarte batzuetan baino gehiago dira. Horrenbestez, eta nahiz eta lehen irakurketa batean ondoriozta daitekeen adin-tarte horretako pertsonak gutxiago parte hartzen dutela, pertsona horien profil soziodemografikoa xehatzen duen kapituluaren adierazten dugu talde horrek boluntariotza mota honen guztizkoaren zati handi bat hartzen duela (ikus boluntarioen profil soziodemografikoari buruzko atala).

## Nolakoak dira boluntariotza aritzen diren pertsonak? Zein da haien profil soziodemografikoa?

### Sexua

Azterlan honen datuek erakusten dute **boluntarioen artean gizon eta emakumeen pisua antzekoa dela (% 49 eta % 51, hurrenez hurren)**, eta hori aldaketa bat da 2012aren aldean, urte hartan boluntarioen guztizkoaren % 64,5 baitziren emakumeak.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA,  
SEXUAREN ARABERA. %. 2017 ETA 2012

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2017	2012
<b>Gizona</b>	49,0	35,5
<b>Emakumea</b>	51,0	64,5
<b>Guztira</b>	100	100

2015eko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriak<sup>24</sup> boluntarioek sexuaren arabera duten banaketa jasotzen du, eta datuak azterlan honetan bildutako antzekoak dira: azterlan hartan, hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario aritzen diren pertsonen % 56 emakumeak ziren.

Era berean, Espainiako Boluntariotza Plataformaren Behatokiak 2017an boluntariotza gainean egindako azterketak agerian utzi zuen boluntario aritzen diren gizon eta emakumeen kopurua parekatuta dagoela, eta adierazi zuen

**Datuek erakusten dute boluntarioen artean gizon eta emakumeen kopurua orekatzen doala.**

<sup>24</sup> Op. Cit.

“boluntarioen profila gehienbat emakumezkoa izateari utzi diola”<sup>25</sup>.

Adina

Hirugarren sektoreko erakundeetan aritzen diren boluntarioen adina **44,38 urtekoa da batez beste**, 2012an jasotakoa baino pixka bat baxuagoa, alegia (48,89 urte). Emakumeak gizonak baino pixka bat gazteagoak dira oro har (45 urte gizonak eta 43,78 emakumeak).

Batik bat nabarmentzekoak dira boluntario gazteak

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA.  
% ETA 2017ko ETA 2012ko ADINA BATEZ BESTE

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
<b>Boluntarioen batez besteko adina</b>	<b>44,38</b>	<b>48,89</b>
<b>Emakumeen batez besteko adina</b>	45,0	51,14
<b>Gizonen batez besteko adina</b>	43,78	49,20
18-29 urte	28,3	19,3
30-39 urte	13,5	12,0
40-49 urte	21,1	15,1
50-64 urte	22,7	27,2
65 urte edo gehiago	14,5	26,4
Guztira	100	100

Adinaren gaineko datuek erakusten dute erakunde horietan laguntzen duten pertsonak heterogeneoak direla. Hala ere, bereziki azpimarratzekoak dira **18 eta 29 urte bitarteko pertsonak** (% 28,3) baita **40 eta 64 urte bitartekoak** ere, boluntarioen % 43,8 osatzen baitute. 2012ko datuen aldean, diferentziarik handiena da 65 urte edo gehiago dituztenen artean boluntariotza jaitsi dela, urte hartan tasa % 26,4koa baitzen.

#### Bizilekua: lurralde historikoa eta udalerriaren tamaina

**Boluntario gehienak Bizkaian bizi dira** (% 51,6), heren bat Gipuzkoan (% 33,9), eta % 14,5 berriz, Araban. Datu horiek 2012an jasotakoen oso antzekoak dira.

Ikusi dugu **boluntario gehiago daudela tamaina ertaineko udalerrietan (% 51,6) eta EAEko hiriburuetan (% 33,9)**. Bost pertsonatik bat udalerritik txiki batean bizi da, gutxi gorabehera.

Boluntario gehienak udalerritik ertainetan edo hiru euskal hiriburuetatik batean bizi dira.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, BIZI DIREN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
Araba	14,5	15,1
Bizkaia	51,6	58,7
Gipuzkoa	33,9	26,1
Guztira	100	100

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
Txikia	14,5	15,1
Ertaina	51,6	58,7
Hiriburua	33,9	26,1
Guztira	100	100

<sup>25</sup> Op. Cit.

## Jaioterria

Boluntario gehien-gehienak **EAE**n jaiok dira (% 85,95). Ehuneko 2012an lortutakoa baino are handiagoa da (% 74,6).

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, JAIOTERRIAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
EAE	85,9	74,6
Estatuko gainerako erkidegoak	11,4	21,2
Atzerria	2,7	4,2
Guztira	100	100

## Lan-egoera

**Boluntario gehienak landunak dira.**

2012ko datuetan ikusi genuenaren antzera, **hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario aritzen diren gehienak landunak dira (% 50).**

% 28,1 bestelako ez-aktiboen taldean legoke (hau da, lan egiteko desgaituta dauden pertsonak, erretiratuak edo aurretik erretiratuak, etxeko lanetan aritzen diren pertsonak eta lana bilatzen ari ez direnak, ikasleak kanpo utzita). Gainera, % 11 ikasleak dira, eta beste % 10,9 langabetuak.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, LAN-EGOERAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
Landuna	50,0	43,1
Langabea	10,9	14,4
Ikaslea	11,0	7,0
Bestelako ez-aktiboa	28,1	35,4
Guztira	100	100

## Ikasketa-maila

**Boluntarioen % 40k ia unibertsitate- edo gradu-ikasketak ditu.** % 23,5ek lanbide-heziketa egin du, eta beste % 26,2k bigarren hezkuntza. Lehen hezkuntzako ikasketak edo ikasketarik gabeko pertsonak % 10 dira.

Datu horiek bat datoz 2012an boluntariotzari buruz egindako azterlanarekin<sup>26</sup>: boluntarioen % 42k unibertsitate-ikasketak zituen. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriak<sup>27</sup> ere azaltzen du prestakuntza-maila altua duten boluntarioak daudela, eta kalkulatu du boluntarioen % 43,08k unibertsitate-ikasketak dituela.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
Ikasketarik ez	1,5	3,8
Lehen hezkuntza	9,2	28,9
Bigarren hezkuntza	26,2	19,2
LH	23,5	20,7
Gradu-ikasketak	39,6	27,4
Guztira	100	100

Estatuan, Boluntariotzaren Plataformak Espainiako boluntarioei buruz argitaratutako azterlanak ere adierazten du boluntarioen profila unibertsitate-ikasketak dituen pertsonarena dela gehienbat<sup>28</sup>.

<sup>26</sup> Op. Cit.

<sup>27</sup> Op. Cit.

<sup>28</sup> Op. Cit.

## Familiaren osaera

**Boluntarioen % 62 bikotearekin bizi da** (% 25ek ez du seme-alabarik; % 37k bai, ordea). % 10 ia bakarrik bizi da, eta % 27,4, berriz, behintzat gurasoetako batekin.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, FAMILIAREN OSAERAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2012	2017
Bakarrik dago	9,7	10,3
Beste pertsona batzuekin, baina ez dira familia-nukleoko kide	1,4	3
Bikotearekin, seme-alabarik gabe	25,0	22,7
Gurasoekin	22,4	13,2
Bikotearekin eta seme-alabekin	32,1	34,2
Amarekin edo aitarekin	5,0	4,9
Seme-alabekin	1,0	3,5
Familia zabala	3,5	8,2
Guztira	100	100

**Nolako da boluntarioek hirugarren sektoreko erakundeetan gauzatzen duten lana?**

### Erakunde batean baino gehiagotan laguntzea

Bildutako datuen arabera, **hirugarren sektorean aritzen direnen artean, gutxi gorabehera hamar pertsonatik lauk hirugarren erakunde batean baino gehiagotan laguntzen du (% 41,8)**. Datuak 2012an jasotako antzekoak dira, nahiz eta oraingoan pixka bat baxuagoak izan (% 46,4).

Hamar pertsonatik lauk, gutxi gorabehera, erakunde batean baino gehiagotan laguntzen du.

Era berean, Espainiako Boluntariotzaren Plataformaren Behatokiak 2016an plazaratutako datuek<sup>29</sup> erakusten digute % 39,7k hainbat erakundetan laguntzen duela.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ERAKUNDE BATEN BAINO GEHIAGOTAN LAGUNTZEN DUTEN KONTUAN IZANIK. 2017ko ETA 2012ko %

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2017	2012	Gizona	Emakumea
Erakunde batean baino gehiagotan laguntzen du	41,8	46,4	50,1	33,9
Ez du erakunde batean baino gehiagotan laguntzen	58,2	53,6	49,9	66,1
Guztira	100	100	100	100

### Erakundearen jarduera-eremua

Aritzen diren hirugarren sektoreko erakundeen jarduera-eremuari erreparatuz gero, esan beharra dago **gizarte-ekintza dela pertsona gehien biltzen dituen**. Pertsona horien % 26,6k bazterkeria-arriskuan, babesgabetasun-egoeran edo zaugarritasun berezian dauden taldeen egoera arintzera bideratutako erakundeetan laguntzen dute.

Gizarte-ekintza, arlo hiritarra eta artea eta kultura dira pertsona gehien biltzen

**Eremu horren ostean, nabarmentzekoak dira arlo hiritarreko erakundeak** (auzo-elkartek, erretiratuak, emakume-elkartek, etab.) (% 15,3) **eta arte eta kulturarekin lotutakoak** (euskara, folklorea...) (% 9,1). 2012an ere arlo horietan bildu ziren boluntario gehienak.

<sup>29</sup> Op. Cit.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ERAKUNDEEN JARDUERA EREMUAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %.

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2017	2012
Garapenerako nazioarteko lankidetzak	8,5	8,4
Arlo hiritarra	15,3	17,2
Artistikoa eta kulturala	9,1	13,8
Enplegua	4,0	-
Gizarte-ekintza	26,6	35,2
Ingurumena eta animalien babesa	4,5	2,1
Asia eta denbora libre	8,3	8,4
Osasuna	7,1	9,9
Giza eskubideak	2,0	1,6
Kirola	8,0	3,4
Hezkuntza (guraso-elkarteak barne)	3,3	-
Bestelakoak	3,1	-
Guztira	100	100

Badirudi nolabaiteko erlazioa dagoela erakundearen eremuaren eta pertsonen sexuaren artean. Ildo horretatik, emakumeak gizarte-ekintzaren (% 30,9 emakumeak dira, eta % 22,4 gizonak) eta garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 13,7 emakumeak dira, eta % 3,2 gizonak) aritzen dira, hein handiago batean. Gizonezko boluntarioak, aldiz, gehiago dira kirol-jardueretan (% 14,5 gizonak dira, eta % 1,5 emakumeak) eta enpleguaren sustapenean (% 7,1 gizonak dira, eta % 0,9 emakumeak), besteak beste.

Emakumeek gizarte-ekintzan eta garapenerako lankidetzan parte hartzen dute bereziki, eta gizonek, berriz, kirol-jardueretan eta enpleguaren arloan.

Itxuraz, boluntarioen adinak ere badu erlaziorik aukeratutako erakunde motarekin. Hala, gazteenak (18-29 urte) aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako erakundeetan aritzen dira hein handiagoan (% 26,3), eta nagusiagoek, berriz, gizarte-ekintzan eta arlo hiritarrean askoz gehiago parte hartzen dute. Azpimarratzekoa da, halaber, hezkuntzaren eremua (guraso-elkarteak barne) adin ertaineko pertsonekin lotuta dagoela nagusiki, eta batez ere 40 eta 49 urte bitartekoekin (% 9).

GRAFIKOA: BOLUNTARIOEN BANAKETA, ERAKUNDEEN JARDUERA-EREMUAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. %. 2017

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	GUZTIRA	Sexua		Adina				
		Gizona	Emakumea	18-29	30-39	40-49	50-64	65 edo gehiago
Garapenerako nazioarteko lankidetzak	8,5	3,2	13,7	5,9	17,7	8,6	10,7	1,8
Arlo hiritarra	15,3	13,6	17,1	11,5	9,3	8,3	21,3	28,6
Artistikoa eta kulturala	9,1	10,1	8,2	6,7	11,0	10,7	12,0	5,4
Enplegua	4,0	7,1	,9	20,3	19,8	5,4	0,0	1,8
Gizarte-ekintza	26,6	22,4	30,9	0,0	13,6	25,3	33,1	42,2
Ingurumena eta animalien babesa	4,5	2,3	6,8	10,9	5,9	0,0	2,9	0,0
Asia eta denbora libre	8,3	10,5	6,2	26,6	5,5	0,0	0,0	0,0
Osasuna	7,1	6,0	8,2	4,2	5,9	12,3	5,0	9,9
Giza eskubideak	2,0	1,9	2,1	0,0	0,0	2,9	4,8	2,0
Kirola	8,0	14,5	1,5	6,3	7,8	13,9	5,9	6,1
Hezkuntza (guraso-elkarteak barne)	3,3	2,7	3,9	0,0	3,4	9,0	4,2	0,0
Bestelakoak	3,1	5,7	,6	7,5	0,0	3,4	0,0	2,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Aurten, erakundea hautatzeko arrazoiari buruzko galdera bat izan du inkestak. Erantzun gehienetan (% 35 inguru), ziurtatu zuten **erakundearen jarduera-eremuaren gaineko interes pertsonala** zutelako aukeratu zutela erakunde hori ("Umeak izugarri gustatzen zaizkidalako, eta behin lan egiten hasita, boluntariora hori egin beharra sentitzen nuen"; "Besteei laguntzea

gustatzen zaidalako, eta uste dudalako laguntzen dudan erakundeak lan handia egiten duela bazterkeria-arriskuan dauden pertsonekin, eta batik bat emakumeekin"; "Laguntzea gustatzen zaidalako eta uste dudalako asko dagoela egiteke arlo honetan"). Kasu askotan, erakundearen jarduera-eremua **boluntarioen ikasketekin edo lan-jarduerarekin lotuta** egon zen ("laguntzen duen erakunde egiten dituen ikasketekin lotuta dago eta borondatezko lana egiteko erakunde polita iruditu zitzaion"; "beste batzuei laguntzeko eta haren ikasketekin lotuta dagoelako").

Erakunde aukeratzean, beste arrazoi nagusienetako bat (erantzunen % 17, gutxi gorabehera) **senideak edo lagunak erakunde horretan boluntario aritzea** izan zen ("Lagunek eskatu zidaten eta oso interesgarria iruditu zitzaidan"; "Laguntzen zuten pertsona batzuk ezagutzen nituen eta ni ere animatu nintzen"; "Nire herrian dagoelako eta laguntzen duten pertsonak ezagutzen ditudalako"). Era berean, badirudi **persona bera edo ezagunak, lagunak edo senideak erakunde baten erabiltzaile izatea edo izan izana** erakunde baten alde egitea sustatzen duela ("Senarrak giltzurrunetako gaixotasuna izan zuen"; "boluntarioak berak gaixotasun hori dauka eta horren gaineko elkarte batean aktiboki parte hartzen du"). Izan ere, erantzunen % 9k ia arrazoi hori aipatu zuten.

Beste pertsona-talde batek (erantzunen % 10 kasik) adierazi zuen erakunde aukeratu zutela **haien ideologiarekin edo sinesmenekin** bat datorrelako ("sinesmenengatik"; "norberaren erabakiz eta ideologiarengatik"; "pentsatzeko eta bizitzeko moduarengatik"), eta % 8 inguruk ziurtatu zuten erakunde aukeratu zutela **ezaguna eta gertukoa** zelako ("Gertu dagoelako eta ez dudalako boluntario aritzeko beste lekurik ezagutzen"; "Nire herrian dagoelako eta erraz aritu naitekeelako"; "Erakunde ezagutzen nuelako").

Horrez gain, erakunde hautatzeko beste arrazoi batzuk ere jaso ditugu, esaterako: erakundearen bazkide izatea, kasualitatez, eta erakunde gustuko izatea. Hala ere, erantzun horiek ehuneko askoz txikiagoak izan zituzten.

## Lankidetzaren mota

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, LANKIDETZA MOTAREN ARABERA. 2017-2012 %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
Aldizkako lankidetzaren mota	39,2	16,7
Ohiko lankidetzaren mota	60,8	83,3
Guztira	100	100

Hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario aritzen diren hamar pertsonatik lauk ia aldizka aritzen dira, hau da, erakundearen jardura zehatzetan laguntzen dute, laguntzaileak behar diren une jakinetan. Ehuneko hori 2012an izandakoa baino nabarmen handiagoa da, orduan % 16,7koa izan baitzen<sup>30</sup>.

Modu egonkorrean aritzen diren emakumeen proportzioa gizonena baino pixka bat handiagoa da (% 60,1 eta % 57,1). Adinari erreparatu, 30 eta 64 urte bitartekoek dute aldizkako lankidetzaren ehunekorik handienak.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, LANKIDETZA MOTAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2017-2012

Egun dauden boluntarioak	2017	Sexua		Adina				
		Gizona	Emakumea	18-29	30-39	40-49	50-64	65 edo gehiago
Aldizkako lankidetzaren mota	39,2	42,9	39,9	24,8	59,7	39,9	47,8	33,8
Ohiko lankidetzaren mota	60,8	57,1	60,1	75,2	40,3	60,1	52,2	66,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

<sup>30</sup> Aldizkako boluntariotzaren pisuan izandako igoera hori talde batek eta besteak boluntariotza-tasan duen proportzioan ere islatzen da. Hala, kalkulatu dugu biztanleen % 13,4 boluntarioak direla; % 5,24 une jakinetan parte hartzen duten aldizkako boluntarioak dira, eta modu egonkorragoan parte hartzen duten ohiko boluntarioak, berriz, % 8,15.

## Boluntariorikari dedikatutako denbora

Kontsultatuko pertsonen artean, **hirugarren sektoreko erakundeetan ohikotasunez aritzen direnen erdiak baino gehiagok (% 51,4) astean 1 eta 5 ordu bitartean ematen dute jarduera horretan.** Bestalde, % 9,3k 20 ordu baino gehiago ematen du jarduera horretan, eta % 3,5ek, aldiz, ordubete baino gutxiago. Hala, asteko 7 ordu eta 15 minutu inguru dedikatzen zaizkio borondatezko lanari batez beste, eta gizonak zein emakumeek ia denbora berdina dedikatzen diote.

**Erdiak baino gehiagok 1 eta 5 ordu bitartean dedikatzen diote lankidetzari. Ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen**

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, DEDIKATZEN DIOTEN DENBORAREN ARABERA. % ETA BATEZ BESTEKO DEDIKAZIOA SEXUAREN ARABERA. 2017 ETA 2012

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2017	2012
<b>Batez besteko denbora asteko</b>	<b>7,32</b>	-
<b>Batez besteko denbora asteko, gizonak</b>	<b>7,31</b>	
<b>Batez besteko denbora asteko, emakumeak</b>	<b>7,32</b>	
<b>Ordu 1 baino gutxiago</b>	3,5	6,4
<b>1 eta 5 ordu bitartean</b>	51,4	61,7
<b>5 eta 10 ordu bitartean</b>	27,8	23,5
<b>11 eta 15 ordu bitartean</b>	4,8	5,4
<b>16 eta 20 ordu bitartean</b>	3,2	2,3
<b>20 ordutik gora</b>	9,3	0,7
<b>Guztira</b>	100	100

Antzeman dugu erakundeetan ordu gehien ematen duten pertsonen proportzioa igo dela. Hala, 2012an boluntarioen % 31,9k astero 5 ordu baino gehiago dedikatzen zizkion lankidetzari, eta egungo datuek adierazten dute ehunekoa % 45,1era igo dela.

## Egindako zereginak

**Hamar pertsonatik zazpik zuzenean esku hartzen du** (hau da, zuzeneko arreta ematen du, jardueretan laguntzen du, pertsonekin edo taldeekin jarduera mota desberdinak egiten ditu...). % 25,2 erakundeen administrazioan eta kudeaketan ere aritzen da, zuzenean esku hartzeaz gain, eta % 15,6 administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen da soilik.

**Hamar pertsonatik zazpik pertsona-taldeekin zuzenean esku hartzen du.**

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, EGITEN DITUZTEN ZEREGINEN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2017	2012
<b>Kudeaketa eta administrazioa</b>	15,6	21,7
<b>Zuzeneko esku-hartzea</b>	57,5	68,8
<b>Mantentze-lanak</b>	1,7	-
<b>Kudeaketa eta administrazioa eta zuzeneko esku-hartzea</b>	25,2	9,4
<b>Guztira</b>	100	100

Datu horiek erakusten dute zuzenean esku hartzen duten pertsona kopurua jaitsi dela 2012aren aldean (% 68,8 izan zen orduan), eta igo egin dela aldi berean zuzeneko esku-hartzeaz eta erakundeen administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen direnena.

Azpimarratu behar da sexuaren araberako diferentziak daudela, emakumeek proportzio handiagoa baitute zuzeneko esku-hartzeetan (% 58,3 emakumeak dira, eta % 50,8 gizonak).



EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, EGITEN DITUZTEN ZEREGINEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak
Kudeaketa eta administrazioa	15,6	18,8	17,2
Zuzeneko esku-hartzea	57,5	50,8	58,3
Mantentze-lanak	1,7	2,4	1,5
Kudeaketa eta administrazioa eta zuzeneko esku-hartzea	25,2	28,0	23,0
Guztira	100	100	100

Egiten duten jarduerarekiko asebetetzea

Egiaztatu dugu boluntarioek asebetetze-maila handia dutela egiten duten jarduerarekin.

Orokorrean, esan daiteke boluntarioak oso gustura daudela egiten duten jarduerarekin. **Boluntarioen % 96,2 pozik edo oso pozik dago egiten duen borondatezko lanarekin.** Datu horiek 2012an jasotako oso antzekoak dira, urte hartan asebetetze-ehuneko % 96,3 baitzen.


Batezbestekoaren balioak erakusten digu asebetetze-maila 8,36 dela, 0 eta 10 bitarteko eskala batean, eta, beraz, hamarren batzuk igo dela 2012tik (8,0).

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, EGITEN DUTEN JARDUERAREKIKO ASEBETETZEAREN ARABERA. ASEBETETZEA BATEZ BESTE ETA 2017ko ETA 2012ko %

Egun dauden boluntarioak	2017	2012
Asebetetze-maila batez beste	8,36	8,0
Ez dago batere pozik	1,4	0,5
Ez dago pozik	0,6	0,5
Berdin zaio	2,0	2,6
Pozik dago	22,6	28,7
Oso pozik dago	73,6	67,6
Guztira	100	100

Emakumeak gizonak baino pixka bat asebetetago daude egiten duten borondatezko lanarekin (8,75 eta 7,95, hurrenez hurren). Halaber, 50 urtetik gorakoek balorazio hobea ematen diote gai horri. Azpimarratzekoa da ere erakundeetan ohikotasunez laguntzen dutenen asebetetze-maila handiagoa dela (8,76 ohiko boluntarioetan eta 7,76 aldizkako boluntarioetan).

HIRUGARREN SEKTOREAN EGITEN DUTEN JARDUERAREKIKO ASEBETETZEAREN BATEZ BESTE. EMAITZAK: OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN ETA LANKIDETZA MOTAREN ARABERAKOAK. 2017



Espainiako Boluntariotzaren Plataformaren Behatokiak 2016an argitaratutako datuek<sup>31</sup> adierazten dute boluntarioen % 96,2 gustura dagoela egiten duen lanarekin. Datu horiek erakusten digute asebetetze-maila txikiagoa dela gizonen kasuan.

### Etorkizunerako asmoak

**Hamar boluntariotik bederatzik ziurtatzen dute etorkizunean erakundeak laguntzen jarraituko dutela.** % 8,3k onartzen du zenbaitetan borondatezko lana uztea pentsatzen duela, eta % 1,7k uztea erabaki du jada. Datu horiek 2012an jasotako osoko antzekoak dira.


Boluntario gehienek uste dute datozen urteetan boluntario izaten jarraituko dutela.

EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ETORKIZUNERAKO ASMOEN ARABERA. 2017ko ETA 2012ko %.

<i>Egun dauden boluntarioak</i>	2017	2012
Datozen urteetan boluntario izaten jarraituko dut	90,0	90,8
Batzuetan boluntario aritzea pentsatzen dut	8,3	5,8
Ziurrenik boluntario izateari utziko diot	1,7	3,4

Ez dugu alde handirik aurkitu boluntario izaten jarraituko dutela uste duten gizonen eta emakumeen ehunekoen artean (% 91,6 eta % 88,2). Adinaren arabera, badirudi borondatezko lanarekin jarraitzeko asmo irmoagoa dutela 50 urtetik beherakoek. Bestalde, ikusi dugu borondatezko lanarekin jarraituko dutela uste dutenen ehunekoa handiagoa dela aldizka aritzen diren boluntarioen artean (% 93,7).

BOLUNTARIO IZATEN JARRAITUKO DUTELA USTE DUTEN PERTSONEN BANAKETA. EMAITZAK: OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN ETA LANKIDETZA MOTAREN ARABERAKOAK. % 2017.



<sup>31</sup> Op. Cit.

## Zeintzuk dira borondatezko lana egiteko oztopo nagusiak?

Galderetako beste baten helburua zen pertsonen borondatezko lanik ez egiteko arrazoi gainera informazioa biltzea. Jasotako datuek adierazten dute eragozpen nagusia dela **horretara dedikatzeko denbora falta**. Boluntario ez direnen artean, hamarretik lauk, gutxi gorabehera, arrazoi hori eman zuen. Pertsona askok aipatu zuten ezinezkoa zutela boluntario aritzea familia-erantzukizunak zituztelako eta/edo familiari lagundu eta senideren bat zaindu behar zutelako (*“Ume txikia daukat eta ez daukat denbora askorik”; “Gurasoak zaintzen ematen dut nire denbora guztia”; “Ilobak denbora eta dedikazio osoa hartzen dizkit”; “Agian erretiratzan naizenean. Orain ez dut horretan pentsatzen, ez dudalako denborarik”; “Ahizpa desgaitu batekin bizi naiz eta zaindu behar dut”*). Halaber, horrekin lotuta, lanaren eremuko erantzukizunak ere bazeuden (*“Momentuz lanean nago eta ez daukat denborarik”; “Denbora falta. Nire lan-ordutegiarekin, ez da bateragarria”*).

Bigarren arrazoirik aipatuena (erantzunen % 20 inguru) **adina** izan zen, **kasu askotan uste baitute nagusiegiak direla eta/edo osasun-arazoak baitituzte** (*“Niri lagundu behar didate”; “Gustatuko litzaidake, baina nire adinean jada ezin dut”; “Adinarengatik”; “Nahikoa daukat nik neuk aurrera egiteko”; “Zahartuta nago”; “Ez zait egokia iruditzen boluntario izatea nire urteekin”*).


**Denbora falta da borondatezko lanari denborarik ez dedikatzeko arrazoi nagusia. Adinak (norbera nagusiegiztat hartzea) eta horren ondoriozko osasun-arazoek eta ekimen edo interes faltak ere jarduera horretan aritzea zailtzen dute.**

Pertsona ugari (erantzunen % 15, gutxi gorabehera) ekimen falta eta borondatezko lanari eta egiten diren jardueri buruzko interesik eza aipatu zuten (*“Gogorik ez”; “Interesik ez”; “Ez dut nahi”; “Momentuz ez dut interesik”; “Ez dit gogorik pizten”*). Era berean, askok azaldu zuten (erantzunen % 12 inguruk), ez zuten borondatezko lanik egiten **ez dutelako horretan pentsatu** (*“Uste dut hori barrenetik atera behar zaizula”; “Momentuz ez dut horretan pentsatzen, agian epe luzera animatuko naiz”; “Ez dut horretan inoiz pentsatu”; “Ez dut horretan pentsatzen, eta ez dut inoiz pentsatu”*).

Hein txikiagoan bada ere, kontsultatutako pertsonen beste arrazoi batzuk ere aipatu zituzten borondatezko lanari ekiteko eragozpenen artean, hala nola **lagundu nahi duten proiektu edo erakunde zehatzik identifikatu ez izana** (*“ez dut aurkitu arreta pizten didan proiekturik ; “ez dut nire gustuko ezer aurkitu”*), **erakunde edo proiektu batekin konpromisoa hartu nahi ez izatea** (*“ez zait konpromisoak hartzea gustatzen”; “Ez dut konpromisoa hartu nahi eta gero parte hartu ez”*), **nahiago izatea beste modu batean laguntza ematea** (*“Nahiago dut dohaintzak egin”; “Nahiago dut aldizkako gauzak egin edo pertsona partikularrentzat zerbait egin”*) edota **irabazi-asmorik gabeko erakundeekiko mesfidantza izatea** (*“Ez zaizkit GKEak gustatzen”; “Ez dut borondatezko lanean sinesten”*).

Badira zenbait desberdintasun adinen artean, borondatezko lana egiteko eragozpenei dagokienez. Izan ere, hein handi batean, zailtasun horiek bakoitzaren bizi-zikloaren unearekin lotuta daude.

- ✓ Gazte gehienek (18-29 urte) adierazi zuten *ez dutela pentsatu boluntario izatea* (% 57) edo *ez dutela denborarik* (% 28,6).
- ✓ Bestalde, 30 eta 39 bitarteko pertsonak *denbora faltari* egozten zioten maiz jarrera hori, lanarekin edo familiarekin (adingabeko seme-alabak...) lotutako erantzukizunak dituztelako (% 50). Orobat, adin-tarte horretako pertsona askok esan zuten *ez duela pentsatu mota ekimen parte hartzea* (% 28,1).
- ✓ Bestalde, 40 eta 49 urte bitarteko pertsonak *denbora falta* aipatu zuten gehienbat (% 51), eta, bigarren arrazoi gisa, *horretan pentsatu ez dutela* (% 18).
- ✓ Azkenik, 50 eta 64 urte bitartekoek adierazi zuten ez direla boluntariotzan aritzen *denborarik ez dutelako* nagusiki (familiararekin lotutako erantzukizunen ondorioz edota senideak, ilobak... zaindu behar dituztelako, besteak beste) (% 43,8). Halaber, adin-tarte horretako pertsona askok esan zuten *ez dutela horretan pentsatu* (% 16,7) eta *adina* ere aipatu zuten parte hartzeko eragozpen gisa, beren burua nagusiegizat hartzen baitzuten) (% 16,7).
- ✓ 65 urte edo gehiagokoek adina aipatu zuten batez ere boluntario gisa parte hartzeko zailtasunen artean (pertsona horietako askok horretarako zaharregiak direla uste zuten) (% 38,1). Horrez gain, askok *denbora falta* ere aipatu zuten, familiarekin lotutako erantzukizunengatik (% 28,9). Kasu horretan, senideak, ilobak... zaindu behar izatea litzateke denbora falta horren arrazoa.



## 4.2. PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUK

Esan dugun bezala, hirugarren sektoreko boluntarioak kuantifikatzeaz gain, abaguneaz baliatu gara ikertzeko zenbat pertsona aritzen diren boluntariotzarekin batera ematen diren partaidetza sozialerako beste modu batzuetan. Ondoren, kontuan hartu ditugun partaidetza sozialerako moduetako bakoitzaren analisia jaso dugu.



### A. Zenbat pertsona dira erakunderen bateko kide? Zenbat pertsona daude erakunderen batean bazkide-tuta edo afiliatuta?

---

Lan honetan bildutako datuen arabera, kontsultatutako pertsonen % 38,9 erakunderen bateko kide da, erakunde hori hirugarren sektorekoa izan zein bestelakoa izan, hala nola parrokiak edo zentro erlijiosoak, sindikatuak edo lanbide-elkargoak eta/edo alderdi politikoak.

Ez dirudi sexua erabakigarria denik erakunderen bateko kide izateko, nahiz eta gizonen tasa emakumeena baino pixka bat altuagoa den (% 40,1 eta % 37,7).

Adinaren arabera, 40 eta 64 urte bitarteko pertsonak dute tasa altuenak (% 47tik gora). Kideen tasa handiagoa da, halaber, Gipuzkoako Lurralde Historikoan (% 46).

Azpimarratzekoa da ere bazkide eta/edo afiliatu diren pertsonen ehuneko batezbestekotik oso gora dagoela hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario direnen artean (% 74,6).

ERAKUNDEREN BATEKO KIDE/AFILIATU DIREN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. % 2017.

		%
<b>% pertsona bazkide/afiliatu</b>		<b>38,9</b>
SEXU A	Gizona	40,1
	Emakumea	37,7
ADINA	18-29 urte	24,7
	30-39 urte	40,4
	40-49 urte	48,2
	50-64 urte	47,4
	65 edo gehiago	29,2
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	31,7
	Bizkaia	36,5
	Gipuzkoa	46,0
<b>Hirugarren sektoreko erakundeetako boluntarioak</b>		<b>74,6</b>

Kontuan hartutako erakundeei erreparatuz gero, hauek dira kidez-tasen emaitzak:

KIDE/AFILIATU DIREN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA ERAKUNDE MOTAREN, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. % 2017.

		Hirugarren sektoreko erakundeak	Zentro erlijiosoa	Sindikatu edo lanbide-elkargoa	Alderdi politikoa
<b>pertsona bazkideen/afiliatuen %</b>		<b>29,3</b>	<b>3,2</b>	<b>13,9</b>	<b>2,3</b>
SEXU A	Gizona	28,9	2,3	17,6	2,7
	Emakumea	29,7	4,0	10,4	2,0
ADINA	18-29 urte	20,1	3,3	5,5	0,8
	30-39 urte	24,1	0,6	20	2,1
	40-49 urte	37,2	3,0	19,0	2,4
	50-64 urte	36,5	3,2	20,5	2,8
	65 edo gehiago	24,2	5,0	3,2	2,7
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	22,5	1,5	10,8	1,3
	Bizkaia	28,2	3,1	13,4	2,7
	Gipuzkoa	34,4	4,5	16,0	2,2

 **EAEko biztanleen ia % 30 hirugarren sektoreko erakunderen bateko kide da.**

Azpimarratzekoa da batez ere 40 eta 64 urte bitarteko pertsonen kidez-tasa-maila. Lurraldeei erreparatuta, Gipuzkoak du ehunekorik handiena (% 34,4).

2015ean argitaratutako 58. euskal soziometroak<sup>32</sup> zenbait datu eman zituen EAEko biztanleek talde edo erakunde desberdinetan duten kidez-tasa buruz. Ikerlan horren arabera, EAEko biztanleen % 15 kirol-talderen bateko kide da, % 13 kultura-talde batekoa, % 13 babes sozialari edo giza eskubideei buruzko erakunde batekoa, % 7 auzo-elkarte batekoa, beste % 7 guraso-elkarte batekoa, % 3 gazte- edo ikasle-elkarte batekoa eta % 8 bestelako boluntario-elkarteren batean dago.

<sup>32</sup> Op. Cit.

CISek 2017an eginiko Azaroko barometroak<sup>33</sup> kalkulatu zuen biztanleen % 16,7 karitate edo gizarte-laguntzako elkarteren batekoa dela edo izan zela azken urtean zehar, % 13,1 kirol-klub edo -elkarte batekoa, % 12,2 kultura- edo aisialdi-talde batekoa, % 2,6 talde ekologista batekoa, % 5,5 giza eskubideen edo bidezko merkataritzaren aldeko elkarte bakezale batekoa, % 2,7 gazte- edo ikasle-elkarte batekoa eta beste % 10,6 bestelako elkarteetan dago (guraso-elkarteak, auzo-elkarteak...).

Europar, 2013n argitaratutako 373. Eurobarometroak<sup>34</sup> ziurtatu zuen europar biztanleen % 20 ekonomia, gizarte, ingurumen, kultura edo kirolen gaineko interesa duen gobernuz kanpoko erakunderen bateko kide zela eta beste % 17 beste interes batzuk dituen eta ofizialki erregistratuta ez dagoen gobernuz kanpoko erakunderen batekoa.

↳ **EAEko biztanleen % 14 kasik sindikatu edo lanbide-elkargo batera afiliatuta dago.**

Kasu horretan, gizon afiliatuen proportzioa emakumeena baino handiagoa da (% 17,6 eta % 10,4). Gainera, 30 eta 64 urte bitarteko pertsonak afiliazio-tasa askoz ere altuagoak dituzte. Lurraldeei erreparatuz, Gipuzkoak dauka sindikatuekiko afiliazio-indizerik altuena (% 16).

Era berean, euskal soziometroak ezarri zuen EAEko biztanleen % 13 sindikatu edo enpresa-elkarte bateko kide zela. Bestalde, CISen aipatutako ikerlanak adierazi zuen espainiar biztanleen % 8,6 sindikaturen bateko kide zela, % 4,8 lanbide-elkargo batekoa eta % 1,6 enpresa-elkarte batekoa.

Europar, Eurobarometroak kalkulatu zuen europar biztanleen % 16 sindikatu bateko kide zela, eta % 11 lanbide-elkarte batekoa.

↳ **Kontsultatutako pertsonen % 3,2 parrokia edo zentro erlijioso bateko kide da.**

Emakumeen tasa handiagoa da kasu horretan (% 4,0). Adinaren arabera, 65 urtetik gorako pertsonak daude gehienbat (% 5).

Euskal soziometroaren arabera, EAEko biztanleen % 8 parrokia edo bestelako elkarte edo erakunde erlijioso bateko kide da.

↳ **Inkestatutako pertsonen % 2,3 alderdi politiko bateko kide da.**

Talde politiko horietako kideen artean, gizonen tasa emakumeena baino pixka bat handiagoa da (% 2,7 eta % 2, hurrenez hurren), eta 40 urtetik goragoko pertsonak dira nagusi.

Euskal soziometroak adierazten du biztanleen % 4 alderdi politikoren bateko kide dela. CISen datuen arabera, Espainiako biztanleen % 3,8 alderdi politiko bateko kide da edo izan da azken urtean zehar<sup>35</sup>.

**B. Zenbat pertsona aritzen dira boluntario hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetan? Zenbatek laguntzen dute zentro erlijioso, sindikatu edo lanbide-elkargo eta/edo alderdi politiko batean?**

---

<sup>33</sup> Op. Cit.

<sup>34</sup> Op. Cit.

<sup>35</sup> Op. Cit.

Aintzat izan dugun partaidetza sozialeko beste moduetako bat izan da **hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetan borondatezko lan ordaindu gabea** egitea. Hain zuzen ere, parrokiez, zentro erlijiosoez, sindikatu edo lanbide-elkargoez eta/edo alderdi politikoez ari gara. Indarreko legeriak ez ditu pertsona horiek boluntariotzat hartzen, zentzu hertsian; baina interesgarritzat jotzen dugu erakunde mota horietan modu altruistan laguntzen duten pertsonen bolumena ezagutzea.

**EAEko biztanleen % 5,6 inguru (100.657 pertsona, gutxi gorabehera) boluntario aritu da** hirugarren sektorekoak ez diren irabazi-asmorik **erakunde pribatuetan azken urtean**. Zehazki, % 2,2 zentro erlijioaren batean aritu da (40.264 pertsona), % 3 sindikatu edo lanbide-elkargo batean (50.003 pertsona) eta % 1,5 alderdi politikoren batean (25.330 pertsona). Gainera, biztanleen % 4,4 aktiboki parte hartu zuen erakunde horiekin iraganean ere.

Biztanleen % 5,6k borondatezko lana egiten du erakunde pribatuetan, horiek zentro erlijiosoak (% 2,2), sindikatuak edo lanbide-elkargoak (% 3) eta/edo alderdi politikoak izan (% 1,5).

**HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ERAKUNDEETAN BORONDATEZKO LAN ORDAINDU GABEA EGITEN DUTEN PERTSONEN PROPORZIOA. LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDE MOTAREN ARABERAKO EMAITZAK. % ETA ZENBATESPENA ABSOLUTUETAN. 2017**

Zentro erlijiosoak		Sindikatuak edo lanbide-elkargoak		Alderdi politikoak	
%	Zenbatespena absolutuetan	%	Zenbatespena absolutuetan	%	Zenbatespena absolutuetan
2,2	40.264	3,0	50.003	1,5	25.330

Lurralde historikoari so eginez, antzeman dugu Bizkaiak duela indizerik altuena, erakunde mota horietan borondatezko lana egiten duten pertsonen artean (% 6,1). Gipuzkoak eta Arabak antzeko indizeak dituzte, nahiz eta pixka bat baxuagoak izan (% 5,1 eta % 4,8, hurrenez hurren).

**HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ERAKUNDEETAN BORONDATEZKO LAN ORDAINDU GABEA EGITEN DUTEN PERTSONEN PROPORZIOA. LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKO EMAITZAK. % 2017.**





## Zer aldagaik eramaten gaituzte hirugarren sektoretik kanpoko erakundeetan boluntario izatera?

Erakunde mota horietan laguntzen duten gizonen tasa emakumeena baino handiagoa da (% 6,7 gizonak dira, eta % 4,5 emakumeak). Halaber, azpimarratzekoa da inplikazio-tasa handiagoa dela 50 eta 64 urte bitartekoen artean (% 7,1).

Ohartu gara ere pertsona landunek dutela erakunde horietako partaidetza-tasarik handiena (% 8,3). Era berean, gradu-ikasketak dituzten pertsonen partaidetza handiagoa da (% 8,2), ikasketa-maila txikiagoak dituztenekin konparatuta.

HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ERAKUNDEETAN BORONDATEZKO LAN ORDAINDU GABEA EGITEN DUTEN PERTSONEN PROPERTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LAN-EGOERAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERAKOAK. % 2017

		%
<b>Hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetan borondatezko lan ordaindu gabea egiten duten pertsonen %</b>		<b>5,6</b>
SEXUA	Gizona	6,7
	Emakumea	4,5
ADINA	18-29 urte	4,5
	30-39 urte	5,8
	40-49 urte	6,4
	50-64 urte	7,1
	65 urte edo gehiago	3,7
LAN-EGOERA	Landuna	8,3
	Langabea	1,6
	Ikaslea	4,3
	Bestelako ez-aktiboa	3,4
IKASKETA-MAILA	Ikasketarik ez	1,6
	Lehen hezkuntza	2,0
	Bigarren hezkuntza	6,2
	LH	5,4
	Gradu-ikasketak	8,2

### C. Zenbatek ematen diote laguntza ekonomikoa erakunderen bati? Zenbateko maiztasunarekin laguntzen dute?

Erakundeentzako dohaintza ekonomikoak beste partaidetza sozialerako modu bat dira, eta azterlan honetan kontuan hartu nahi izan ditugu.

Lortutako emaitzen arabera, **kontsultatutako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 55,4) erakunderen bat diruz lagundu du azken urtean zehar, aldizka edo une zehatzetan edota modu erregularrean**<sup>36</sup>. Pertsona horietako gehienak erakunde bakarrari eman diote dohaintza (% 73,2), eta beste % 24,2k bi erakunderi. Gainerako % 2,6k 3 erakunderi edo gehiagori lagundu die.

Espainiako Boluntariotzaren Plataformak 2015ean argitaratutako azterlanaren<sup>37</sup> arabera, biztanleen % 32,6 inguruk GK Eren bat ekonomikoki laguntzen du.


Ez dugu alderik ikusi dohaintzak egiten dituzten gizonen (% 54,6) eta emakumeen (% 56,1) proportzioaren artean. Adinari erreparatuz, 40 eta 64 urte bitarteko pertsonak egiten dituzte dohaintza horiek batez ere. Lurraldeei so eginez, bestalde, Gipuzkoak du ehunekorik handiena (% 58,2).

Nabarmentzekoa da ere erakunderen bati ekonomikoki lagundu dioten boluntarioen ehunkoa populazio orokorrarena baino nabarmen handiagoa dela (% 75,5).

**AZKEN URTEAN ERAKUNDEREN BATI EKONOMIKOKI LAGUNDU DIOTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK. % 2017**

		%
<b>laguntza ekonomikoa ematen dutenen %</b>		<b>55,4</b>
SEXUA	Gizona	54,6
	Emakumea	56,1
ADINA	18-29 urte	32,1
	30-39 urte	54,0
	40-49 urte	59,7
	50-64 urte	66,3
	65 edo gehiago	53,8
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	49,2
	Bizkaia	55,5
	Gipuzkoa	58,2
<b>Hirugarren sektoreko erakundeetako boluntarioak</b>		<b>75,5</b>

**ERAKUNDEREN BATI EKONOMIKOKI LAGUNDU DIOTEN PERTSONEN BANAKETA, EKARPENAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. % 2017**



Pertsonen % 63k dohaintzak modu erregularrean egiten dituzte; dohaintza erregular horiek erakundeen bazkidetza- edo afiliazio-kuotekin bat datoz, hein handi batean. Kontsultatutako pertsonen % 37k aldizka edo une zehatzetan egiten dituzte dohaintzak.

<sup>36</sup> Dohaintza ekonomikoaren barruan, elikagai-banaketan aritzen diren kateetako salmenta-guneetan elikagaiak eta bestelako produktuak ematea ere sartzen da.

<sup>37</sup> Op. Cit.

Hona hemen ekonomikoki laguntzen duten erakunde motaren arabera emaitzak:

**AZKEN URTEAN ERAKUNDEREN BATI EKONOMIKOKI LAGUNDU DIOTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA LAGUNTZA EMAN DIOTEN ERAKUNDE MOTAREN, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK.**  
% 2017

		Hirugarren sektoreko erakundea	Zentro erlijiosoa	Sindikatu edo lanbide-elkargoa	Alderdi politikoa
laguntza ekonomikoa ematen dutenen %		47,5	12,3	10,2	2,1
SEXUA	Gizona	45,4	11,9	12,6	2,7
	Emakumea	49,4	12,7	8,0	1,5
ADINA	18-29 urte	28,0	5,2	4,1	2,2
	30-39 urte	39,9	10,0	16,8	1,5
	40-49 urte	52,1	10,0	14,3	1,4
	50-64 urte	60,6	11,9	12,2	2,5
	65 edo gehiago	45,5	19,7	3,6	2,4
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	39,4	11,5	6,5	0,7
	Bizkaia	48,4	14,8	9,1	2,0
	Gipuzkoa	49,6	8,6	13,7	2,7

 **Biztanleen % 47,5ek hirugarren sektoreko erakunderen bati laguntza ekonomikoa eman dio, aldizka nahiz ohiko ekarpenetan.**

Hirugarren sektoreko erakunderen bati dohaintza ekonomikoa ematen dioten emakumeen proportzioa gizonena baino pixka bat handiagoa da (% 49,4 eta % 45,4). Adinaren arabera, nabarmentzekoak dira batez ere 40 eta 64 urte bitarteko pertsonak, baita Bizkaian (% 48,4) eta Gipuzkoan (% 49,6) bizi direnak ere.

 **Kontsultatutako pertsonen % 12,3k laguntza ekonomikoa ematen dio parroki edo zentro erlijioso bati.**

Erakunde horiei ekonomikoki laguntzen dietenen artean, azpimarratzekoak dira batez 65 urtetik gorakoak (% 19,7) eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi direnak (% 14,8).

 **Kontsultatutako pertsonen % 10,2k laguntza ekonomikoa ematen dio sindikatu edo lanbide-elkargo bati.**

Sindikatu edo lanbide-elkargo bati laguntza ematen dieten gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da (% 12,6 eta % 8,0). Handiagoa da ere erakunde horiei dohaintza ekonomikoa ematen dioten 30 eta 64 urte bitarteko proportzioa. Lurraldearen arabera, nabarmentzekoa da batez ere Gipuzkoan dohaintza mota hori egiten dutenen ehunekoak (% 13,7).

 **Kontsultatutako populazioaren % 2 inguruk laguntza ekonomikoa ematen dio alderdi politiko bati.**

Gizonek (% 2,7) emakumeek (% 1,5) baino gehiago laguntzen dituzte ekonomikoki erakunde mota horiek. Lurraldeari so eginez, Gipuzkoa gailentzen da.

## D. Zer-nolako partaidetza dauka EAeko biztanleriak jarduera edo ekimen sozial eta/edo politikoetan?

Azterlan honek kontuan hartu duen partaidetza sozialerako beste modu bat jarduera politiko eta/edo sozialetan parte hartzea izan da. Zehazki, zortzi jarduera aztertu dira:

- ✓ Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea
- ✓ Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta.
- ✓ administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskakizunak sinatzea edo babestea, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak tarteko.
- ✓ Manifestaldietan edo kontzentrazioetan parte hartzea.
- ✓ Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak, ordainik jaso gabe.
- ✓ Hedabideren batean iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adieraztea.
- ✓ Grebetan parte hartzea.
- ✓ Etxean pertsonak hartzea.

**Biztanleen % 69,9k behintzat jarduera horietako batean parte hartu du azken urtean, eta, beraz, % 30,1ek ez du batean ere parte hartu.** Esan behar ere % 47k behintzat bi jardueratan parte hartu duela, eta % 7,9k, berriz, bostetan edo gehiagotan.


Ez dugu alderik ikusi sexuaren edo lurralde historikoaren arabera, biztanleek ekimen horietan duten inplikazioari dagokionez. Adinari erreparatuz, 50 urtetik beherako pertsonak dira jarduera mota horietan parte hartzen dutenak gehienbat. Horrez gain, dirudienek, borondatezko lana egiteak ekimen horietan parte hartzeko joeran eragina du (boluntarioen % 89,5ek adierazi zuten jarduera horietako batean parte hartu zuela).

**JARDUERA SOZIAL ETA/EDO POLITIKOETAN PARTE-HARTU DUTEN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK. %**

		%
<b>jarduera sozial eta/edo politikoetan parte hartzen dutenen %</b>		<b>69,9</b>
SEXU A	Gizona	70,8
	Emakumea	69,2
ADINA	18-29	85,1
	30-39	82,6
	40-49	83,5
	50-64	70,2
	65 edo gehiago	43,1
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	65,2
	Bizkaia	70,2
	Gipuzkoa	71,7
<b>Boluntarioak hirugarren sektorean</b>		<b>89,5</b>

Hona hemen emaitzak kontuan hartu diren jardueretako bakoitzean izandako inplikazioaren arabera:

**NOLA BANATZEN DEN POPULAZIOA, JARDUERA SOZIAL ETA/EDO POLITIKOETAN DUTEN PARTAIDETZAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK. % 2017**



↪ Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea (banderak balkoietan, profil-irudia sare sozialetan, etab.) da ekimenik ohikoena, EAEko biztanleen % 43,2k ziurtatu baitzuen horrelakorik egin zuela azken urtean zehar.

50 urtetik beherakoak dira ekimen mota horietan gehien parte hartzen dutenak. Oraingoan ere, hirugarren sektoreko erakundeetan boluntario direnen tasa batezbestekoaren gainetik dago (% 65,7).

Hein batean, datu horiek Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015eko 58. Euskal Soziometroan<sup>38</sup> argitaratutako datuekin erka daitezke. Bertan kalkulatu zen EAEko biztanleen % 20k haren iritzi soziala edo politikoa islatzen zuen irudiren bat erabili zuela (itsasgarria, profil-argazkia...).

↪ Bigarren ekimenik ohikoena da produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta (% 35,9).

<sup>38</sup> Op. Cit.

Berriz ere, 50 urtetik beherakoak dira ekimen mota hori gehien babesten dutenak. Gainera, boluntario aritzen direnen inplikazioa biztanleriaren batezbestekoaren oso gainetik dago (% 53,8).

Aipatutako soziometroaren arabera, EAEko biztanleen % 16k produktu jakinak boikotatu edo erosteari utzi dio, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak direla eta. Bestalde, CISek 2015eko apirilean egindako barometroak<sup>39</sup> kalkulatu zuen espainiar biztanleen % 23k produktu jakinak erosi zituela azken urtean, arrazoi politiko edo etikoengatik edota ingurumena laguntzeagatik, eta % 20,7k produkturen bat boikotatu edo erosteari utzi ziola, arrazoi horiengatik ere.

↳ EAEko biztanleen herenak gutxi gorabehera (% 35,4) **administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskakizunak sinatu edo babestu ditu, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak tarteko (hau da, eskakizunak sortzea edo sinatzea, horiek online, aurrez aurre, ohiko postaz, sare sozialetan edo bestelakoetan izan).**

Azpimarratzekoa da ekimen horietan parte hartu zutenen % 41,2k aurrez aurre egin zuela, eta beste % 40,7k, berriz, internet bidez. % 18,2k aurrez aurre zein internet bidez egin zuen.

Oraingoan ere, badirudi 50 urtetik beherakoen artean gehiago babesten direla ekimen horiek. Lurraldeka, Bizkaiak ditu tasarik altuenak (% 37,7) eta Arabak, berriz, baxuena (% 29,4). Gainera, itxuraz, boluntario aritzeak partaidetza mota horrekiko inplikazioa ere handitzen du (boluntario direnen % 57,3k ekimen horietan parte hartu du).

Datu horiek euskal soziometroak argitaratutakoen antzekoak dira, soziometroak kalkulatu baitzuen biztanleen % 35ek aldarrikapenen bat sinatu duela. CISen barometroak adierazi zuen espainiar biztanleriaren % 29,2k sinatu edo sinadurak jaso dituela eta gehienek aurrez aurre egin dutela (% 71,2).

Era berean, 2013n demokrazia parte-hartzaileari buruz argitaratutako Eurobarometroaren<sup>40</sup> arabera, europar biztanleen % 34k eskaeraren bat sinatu zuen, paperean zein internet bidez.

↳ **Kontsultatutako pertsonen % 27,2k adierazi zuen manifestaldi edo kontzentrazio batera bertaratu zela azken urtean zehar<sup>41</sup>.**

Deialdi horietara bertaratu den gizonen ehunekoak emakumeena baino handiagoa da (% 31,4 eta % 23,4). Horrez gain, 50 urtetik beherako pertsonak eta boluntario direnak (% 48,2) partaidetza-indize handiagoak dituzte.

Ilido beretik, euskal soziometroaren datuek adierazten dute EAEko biztanleen % 28k baimendutako manifestaldiren batean parte hartu zuela inkestaren aurreko urtean. Estatuan, CISek kalkulatu du espainiar biztanleen % 16,9 bertaratu dela manifestaldiren batera.

↳ **Inkestatutako pertsonen % 12k odola eman zuen edo osasunaren arloko beste dohaintzaren bat egin zuen azken urtean zehar.**

<sup>39</sup> Op. Cit.

<sup>40</sup> Op. Cit.

<sup>41</sup> Nabarmendu behar da inkesta azken asteotan pentsioen alde egin diren manifestaldi ugarien aurretik egin zela, eta adinekoak izan direla horietan protagonista nagusi. Halaber, inkesta hau Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta martxoaren 8an deitutako manifestaldiaren aurretik egin zen.

Pertsona gazteenak (40 urtetik beherakoak) dira dohaintza mota horiek gehien egiten dituztenak. Adinak gora egin ahala, tasa pixkanaka jaisten doa, eta jaitsiera handia ikusi dugu 65 urtetik gorakoan artean.

CISek 2017ko azaroko barometroan<sup>42</sup> argitaratutako datuek adierazten dute espainiar populazioaren % 9,2k odola eman zuela inkestaren aurreko urtean zehar.

↳ **EAEko biztanleen % 12,1ek iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adierazi ditu hedabideren batean** (alegia, informazio politikoa eta soziala eman du sare sozialetan, blog pertsonaletan, zuzendariei bideratutako gutunetan eta abarretan).

Gizonek emakumeek baino partaidetza-tasa altuagoa dute gai honetan (% 14,6 eta % 9,9). Adinari so eginez, antzeman dugu 50 urtetik beherakoek eta boluntario aritzen direnek (% 29,7) gehiago parte hartzen dutela ekimen horietan.

Euskal soziometroaren datuak (% 7) eta CISek argitaratutakoak (% 6,8) gure inkestan jasotakoak baino baxuagoak dira. Hala ere, kontuan hartu behar da kasu bietan interneten politikari edo gizarteari buruz eztabaidatzeko foro, blog edo talde batean parte hartzen duten galdetzen zela soilik.

Europar, Eurobarometroak kalkulatu du Europako populazioaren % 28k gai politikoei buruzko iritzia eman duela interneten edo hedabideren batean, eta % 24k tokiko edo eskualdeko hautetsiren bati jakinarazi diola.

↳ **Kontsultatutako hamar pertsonatik batek (% 10,3) grebaren batean parte hartu zuen azken urtean.**

50 urtetik beherakoek eta erakunderen batean laguntzen dutenek (% 24,2) partaidetza zertxobait handiagoa dute mota horretako ekimenetan.

Datu hori euskal soziometroak argitaratutakoa (% 23) baino nabarmen txikiagoa da, baina CISek urte horretan bertan argitaratutako estatuko datuen antzekoa (% 9,8).

↳ **Biztanleen % 2,2 inguruk pertsonak hartu zituen etxean azken urtean** (Txernobyngo haurrak, errefuxiatuak...).

Adinari erreparatuta, pertsona gazteak (18 eta 30 urte bitartekoak) eta 50 eta 64 urte bitartekoak dira ekimen horietan gehien parte hartzen dutenak. Orobat, antza denez, borondatezko lana egiteak ekimen horietan parte hartzeko joera handitzen du (% 5,3).

---

<sup>42</sup> Op. Cit.

PERTSONEN PROPORZIOA JARDUERA SOZIAL ETA/EDO POLITIKOETAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERAKOAK. % 2017

	Guztira	Sexua		Adina				
		Gizona	Emakumea	18-29	30-39	40-49	50-64	65 edo gehiago
Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea	43,2	41	45,2	59	50	52,9	41,5	24,9
Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta.	35,9	38,6	33,5	52,8	47,2	45,8	34,4	13,8
administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskakizunak sinatzea edo babestea, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak tarteko.	35,4	36,7	34,3	46,6	47,6	45,6	33,2	16,1
Manifestaldietan edo kontzentrazioetan parte hartzea.	27,2	31,4	23,4	42,5	38,7	34,2	24,5	9,2
Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak, ordainik jaso gabe.	12,3	14,1	10,7	21	17,3	15,6	13	1,5
Hedabideren batean iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adieraztea.	12,1	14,6	9,9	28	16,3	12,8	8,9	4,2
Grebetan parte hartzea.	10,3	10,3	10,4	26,9	10,6	13,7	8,3	1,2
Etxean pertsonak hartzea.	2,2	1,7	2,6	6,8	0,5	1,7	2,5	0,9

PERTSONEN PROPORZIOA, JARDUERA SOZIAL ETA/EDO POLITIKOETAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK. % 2017

	Guztira	Lurralde Historikoa			boluntarioen %
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea	43,2	38,6	44,1	43,8	65,7
Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta.	35,9	37,3	33,2	39,7	53,8
administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskakizunak sinatzea edo babestea, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak tarteko.	35,4	29,4	37,7	34,6	57,3
Manifestaldietan edo kontzentrazioetan parte hartzea.	27,2	24,3	29,1	25,6	48,2
Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak, ordainik jaso gabe.	12,3	13,3	11,2	13,8	19,1
Hedabideren batean iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adieraztea.	12,1	9,5	12,1	13,3	29,7
Grebetan parte hartzea.	10,3	8,9	9,8	11,8	24,2
Etxean pertsonak hartzea.	2,2	1,4	1,8	3	5,3



## E. Zenbatek parte hartu dute auzoan/herrian/udalerrian jarduera ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak antolatzen?

---

Azterlanak jaso egin ditu populazioak komunitate-jarduerak antolatzen duen inplikazioari buruzko zenbait gai. Zehazki, honako elementuak aztertu dira:

- ✓ *Auzoan/herrian/udalerrian jarduera ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak antolatzen parte hartzea*
- ✓ *Auzoan/herrian/udalerrian jarduera hiritarrak antolatzen parte hartzea*

Emaitza orokorren analisitik, honako hau ondoriozta dezakegu:

↳ **Kontsultatutako lau pertsonatik batek ia (% 24,3) parte hartu du auzoan/herrian/udalerrian jarduera ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak antolatzen. Gehienak (% 22,5) jarduera ludikoetan, kiroletakoetan eta/edo kulturaletan aritu dira**, besteak beste: futbol-talde bat entrenatzea edo egiten diren bestelako kirol-jarduerak; egun seinatuetakoa momentu berezietan parte hartzea, hala nola auzoko jaiak, Olentzeroa eta san joan jaiak; jarduera antolatu batean monitore aritzea...

↳ Horrez gain, **% 7,2k jarduera hiritarretan esku hartu du**, esaterako: auzolana, administrazioak sustatutako partaidetza-prozesuak (barruti-kontseiluak, kasu), larrialdietan laguntzea, babes zibila, ekitaldi handiak...<sup>43</sup>

Bi kasuetan, gizonak emakumeek baino partaidetza-tasa altuagoak dituzte. Adinaren arabera, badirudi jarduera ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak profil gazteago batekin lotuta daudela, 40 urtetik beherako populazioa baita gehien parte hartzen duena, eta bereziki, 18 eta 29 urte bitartekoak (% 40). Jarduera hiritarren kasuan, gazteak (18-29 urte) dira berriz ere partaidetza-indize altuenak dituztenak (% 11,1). Alabaina, 40 eta 49 urte bitartekoen tasa handia da, eta batezbestekoaren gainetik dago (% 10,4).

Bestalde, antzeman dugu dagoeneko boluntario direnak jarduera mota horietan parte hartzeko joera handiagoa dutela, eta, izan ere, partaidetza-tasa nabarmen altuagoak dituzte bi jarduera motetan. Populazio osoaren aldean, diferentzia esanguratsua da jarduera ludikoen, kiroletakoen eta/edo kulturalen kasuan (% 60,8).

---

<sup>43</sup> Azpimarratu behar da zenbait pertsonak jarduera mota bietan parte hartu dutela, eta, hortaz, banakako ehunekoen batura ez dator bat guztizkoaren.

JARDUERA LUDIKOETAN, KULTURALETAN, KIROLETAKOETAN ETA/EDO HIRITARRETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERAKOAK. % 2017

	Guztira	Sexua		Adina				
		Gizona	Emakumea	18-29	30-39	40-49	50-64	65 edo gehiago
Jarduera ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak antolatzen parte hartzen du	22,5	26	19,1	40	33,8	24	17,9	9,4
Jarduera hiritarrak antolatzen parte hartzen du	7,2	8,6	5,9	11,1	8,1	10,4	7	2,3
Aurreko edozeinetako bat antolatzen parte hartzen du	24,3	27,9	20,9	42,1	34,6	25,5	20,9	10,8

JARDUERA LUDIKOETAN, KULTURALETAN, KIROLETAKOETAN ETA/EDO HIRITARRETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK: % 2017

	Guztira	Lurralde Historikoa			boluntarioen %
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Jarduera ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak antolatzen parte hartzen du	22,5	24,9	19,3	26,6	60,8
Jarduera hiritarrak antolatzen parte hartzen du	7,2	5,5	7,3	7,7	21,4
Aurreko edozeinetako bat antolatzen parte hartzen du	24,3	26,8	21,1	28,5	64,0

## F. Nolako da beste etxeei emandako laguntza? Zenbatek ematen dute laguntza mota hori?

Ondoren, beste etxeei emandako laguntzaren datuen analisiaren emaitzak aurkezten ditugu; hau da, **etxetik kanpo eta erakundeen eremutik at beste pertsoneri dedikatutako denborari** dagozkionak. Argitu behar dugu partaidetza mota hau dela kolektiboa eta antolatua (hein handiagoan ala txikiagoan) ez den bakarra. Dena dela, interesgarria iruditu zaigu laguntza mota hori ematen duten pertsonen bolumenari buruzko datuak biltzea. Zehazki, atal honetan adierazle hauek aztertu ditugu:

- ✓ *Aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzeari buruzkoa*
- ✓ *Laguntza eta bisitak*
- ✓ *Hirugarren pertsonak zaintzen laguntzea*
- ✓ *Laguntza ekonomikoa pertsona partikularrentzat*
- ✓ *Etxea konpontzeko laguntza ematea*
- ✓ *Etxeke lanekin lotutako laguntza*

**Kontsultatutako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 55,6) aztertutako laguntzetako bat eman zien azken urtean zehar familiaz kanpoko pertsoneri. Aitzitik, % 13,4 dira lan horiek ohikotasunez egiten zituztenak eta ez behar edo goera zehatzei erantzunez.**


Sexuaren arabera, emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da, ohikotasunez aritzen direnen artean (% 15,6 eta % 11,3), eta handiagoa da 30 eta 49 urte bitartekoena ere (% 14,9). Horrez gain, Gipuzkoak beste lurraldeek baino indize altuagoak ditu (% 14,8).

Nabarmentzekoa da ere boluntarioen proportzioa handiagoa dela populazio orokorrarena baino (% 18,6).

BESTE ETXE BATZUEI LAGUNTZAREN BAT EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA MAIZTASUNAREN ARABERAKOAK (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA), SEXUARI, ADINARI, LURRALDE HISTORIKOARI ETA BORONDATEZKO LANA EGITEARI ERREPARATUTA. % 2017

		%
Noizbait laguntzaren bat eman dutenen %		55,6
Laguntzaren bat eman ohi dutenen %		13,4
SEXU A	Gizona	11,3
	Emakumea	15,6
ADINA	18-29 urte	10,1
	30-39 urte	14,9
	40-49 urte	14,9
	50-64 urte	12,1
	65 edo gehiago	14,5
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	8,9
	Bizkaia	13,7
	Gipuzkoa	14,8
Hirugarren sektoreko erakundeetako boluntarioak		18,5


**BESTE ETXE BATZUEI LAGUNDU OHI DIETEN PERTSONEN BANAKETA, LAGUNTZA HORRI DEDIKATZEN DIOTEN DENBORAREN ARABERA. % 2017**



Laguntza horiek ohikotasunez eman dituztenen erdiak (% 50,5) astean 1 eta 5 ordu bitartean dedikatu ditu, eta % 23k, berriz, ordubate baino gutxiago. Pertsona horien % 3,5ek, gutxi gorabehera, 15 ordu baino gehiago dedikatu ditu. Oro har, kalkulatu dugu pertsona horiek bi ordu eta hamabost minutu dedikatzen dituztela batez beste.

Aintzat izandako elementuetako bakoitza banan-banan aztertuz gero, honakoa nabarmen daiteke:

**BESTE ETXE BATZUEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORZIOA MAIZTASUNAREN ARABERA (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA). % 2017**



➡ **Kontsultatutako lau pertsonatik batek (% 25,1) aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzearen gainekoa eman zuen azken urtean zehar (hala nola aholkularitza juridikoa edo ekonomikoa, fakturen kudeaketa, etab.). % 3,5ek ohikotasunez eman zuen laguntza mota hori.**

Nagusiki, 30 eta 49 urte bitarteko pertsonak dira laguntza hori ohikotasunez ematen zutenak. Lurraldeka, Gipuzkoak ditu indizirik altuenak (% 4,1), eta azpimarratzekoa da boluntario aritzen direnek laguntza mota horiek emateko joera handiagoa dutela (% 6,9).

➡ **% 24,7k jardueraren batera lagundu edo bisitak egin zituen, adibidez: erosketak edo izapideren bat (bankuan, administrazioan...) egiten laguntzea, medikuarenera joatea, pertsonen garraioa, etab. Pertsona horien % 4,2k ohikotasunez egiten du.**

Laguntza mota hori ohikotasunez ematen zuten emakumeen (% 4,8) eta 30-39 urtekoen (% 7,7) pisua batezbestekoaren gainetik dago. Lurraldeari so eginez, Gipuzkoak (% 4,8) eta Bizkaiak (% 4,4) dituzte tasarik handienak. Halaber, jada boluntario aritzen direnek ere tasa altuagoak dituzte (% 5,8).

↳ **Kontsultatutako pertsonen % 22k familiaz kanpoko hirugarren bat zaintzen lagundu zuen**, hala nola adinekoak eta adingabeak (esaterako, gaixorik dauden haurrak zaintzea gurasoak lanera joan behar direnean). **% 4,3k ohikotasunez egiten du.**

Emakumeek (% 5,5) gizonek baino inplikazio handiagoa dute zeregin horietan. Adinaren arabera, 50 urtetik beherakoak dira gehienbat laguntza horietan esku hartzen dutenak, eta lurraldeari erreparatuta, Bizkaiak ditu tasarik altuenak (% 4,8). Boluntario aritzen direnen tasa ere nabarmen handiagoa da biztanle orokorra baino (% 9,4).

CISek 2011ko martxoko Barometroaren datuek adierazi zuten espainiar biztanleen % 10,9k familiaz kanpoko pertsonak zaintzeko edo laguntzeko jardueraren bat egin zuela ordainik jaso gabe (haurrak edo gaixoak zaintzea, baliabiderik gabeko pertsonak...), inkestaren aurreko 12 hilabeteetan<sup>44</sup>.

↳ **Kontsultatutako pertsonen % 19,7k laguntza ekonomikoa eman izan die familiakoak ez diren pertsona partikularrei. % 2,7k ohikotasunez egiten du.**

18-29 urtekoek (% 4,6) eta 40-49 urtekoek (% 3,4) batezbestekoaren gainetik eman zuten laguntza mota hori. Gai honetan ere, boluntario aritzen direnek indize altuagoak dituzte (% 5,1).

↳ **% 17,6k hirugarren bati etxeko gauzak konpontzen lagundu dio** (txorrota edo zarata egiten duen ate bat konpontzea, esaterako). **Horietatik, % 2,3k ohikotasunez egiten du.**

Gizonak (% 3,2) eta 30-49 urte bitartekoak dira laguntza horiek gehien ematen dituztenak. Lurraldeka, Gipuzkoako tasa batezbestekoaren gainetik dago (% 3,3).

↳ **Pertsonen % 15ek adierazi zuen hirugarrenei etxeko lanekin lagundu ziela azken urtean zehar. Gainera, % 3,1ek ohikotasunez egiten du.**

Adinaren arabera, laguntza hori eman ohi dutenen artean, nabarmentzekoak dira batez ere 50 urtetik beherakoak. Halaber, Gipuzkoako tasa beste lurraldeen tasaren oso gainetik dago (% 4,7). Era berean, borondatezko lana egiten dutenek beste pertsonak baino tasa handiagoa dute (% 6,8), eta horretan nabarmentzekoak dira, bereziki, zentro erlijiosoetan, sindikatuetan edo lanbide-elkargoetan eta/edo alderdi politikoetan aritzen direnak.

---

<sup>44</sup> Op. Cit.

BESTE ETXE BATZUEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA MAIZTASUNAREN ARABERAKOAK (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA). % 2017


	Parte-hartzea		Sexua		Adina				
	% aldizkakoa	% ohikoa	Gizona	Emakumea	18-29	30-39	40-49	50-64	65 edo gehiago
Aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzeari buruzkoa	25,1	3,5	3,9	3,2	3	6,6	5,2	2,8	1,2
Laguntza eta bisitak	24,7	4,2	3,5	4,8	3,3	7,7	4,8	2,9	3,1
Hirugarren pertsonak zaintzen laguntzea	22,0	4,3	3,1	5,5	5,3	6,4	5,2	4,4	1,9
Laguntza ekonomikoa pertsona partikularrentzat	19,7	2,7	3,1	2,3	4,6	2,4	3,4	1,8	2,3
Etxea konpontzeko laguntza ematea	17,6	2,3	3,2	1,5	1,4	5,0	3,5	0,9	1,5
Etxeke lanekin lotutako laguntza	15,0	3,1	3,1	3,1	4,1	6,3	3,8	2,4	0,7

BESTE ETXE BATZUEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA MAIZTASUNAREN ARABERAKOAK (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA), LURRALDE HISTORIKOARI ETA BORONDATEZKO LANA EGITEARI ERREPARATUTA. % 2017

	Partaidetza		Lurralde Historikoa			<i>boluntarioen %</i>
	% aldizkakoa	% ohikoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzeari buruzkoa	25,1	3,5	1,4	3,8	4,1	6,9
Laguntza eta bisitak	24,7	4,2	1,8	4,4	4,8	5,4
Hirugarren pertsonak zaintzen laguntzea	22,0	4,3	3	4,8	4,3	9,4
Laguntza ekonomikoa pertsona partikularrentzat	19,7	2,7	2,2	3	2,3	5,1
Etxea konpontzeko laguntza ematea	17,6	2,3	1	2	3,3	2,3
Etxeke lanekin lotutako laguntza	15,0	3,1	1,6	2,6	4,7	6,9

## 5. EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA:

EAEko BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUEI BURUZKO EMAITZA NAGUSIAK



**BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUEN TASEI BURUZKO EMAITZA NAGUSIAK. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK:**

**EAEko BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUEN TASEI BURUZKO EMAITZA NAGUSIAK, SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERA. %**

		GUZTIR A	Sexua		Adina					Lurralde Historikoa			boluntarioe n %
			Gizona	Emakume a	18-29	30-39	40-49	50-64	65 edo gehiag o	Arab a	Bizkai a	Gipuzko a	
<b>BOLUNTARIOAK HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEETAN</b>	Boluntarioak hirugarren sektoreko erakundeetan	<b>13,4</b>	13,6	13,1	29,9	10,7	14,4	11,9	7,5	13,2	13	14	-
<b>PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUK</b>	A. Erakunderen bateko kidea (bazkideak eta/edo afiliatuak)	<b>38,9</b>	40,1	37,7	24,7	40,4	48,2	47,4	29,2	31,7	36,5	46,0	74,6
	B. Bestelako erakunde pribatuetan borondatezko lana egiten du	<b>5,6</b>	6,7	4,5	4,5	5,8	6,4	7,1	3,7	4,8	6,1	5,1	-
	C. Erakunderen bati dohaintza ekonomikoak ematen dizkio	<b>63,6</b>	63,5	63,6	38,2	60,7	69,4	75,3	62	61,1	63	65,7	75,5
	D. Jarduera sozial eta/edo politikoetan parte hartzen du	<b>69,9</b>	70,8	69,2	85,1	82,6	83,5	70,2	43,1	65,2	70,2	71,7	89,5
	E. Jarduera ludikoak, kirolak, kulturalak eta/edo hiritarrak antolatzen parte hartzen du	<b>24,3</b>	27,9	20,9	42,1	34,6	25,5	20,9	10,8	26,8	21,1	28,5	64,0
	F. Ohikotasunez beste etxe batzuei laguntza ematen die (edozein laguntza mota)	<b>13,4</b>	11,3	15,6	10,1	14,9	14,9	12,1	14,5	8,9	13,7	14,8	18,5



## HIRUGARREN ERAKUNDEETAKO BOLUNTARIOTZARI BURUZKO EMAITZA NAGUSIAK:

### Boluntariotza-tasak

- **Boluntariotza-tasa % 13,4 da**, 2012an baino nabarmen handiagoa (% 8,6).
- Bereziki **igo da aldizkako boluntarioen pisua** (% 5,24); ohiko boluntarioak, berriz, % 8,15 dira.
- 2012ko datuetan ez bezala, **gizonen eta emakumeen proportzioa orekatuta dago**.
- Adinaren arabera, **nabarmenezkoa da gazteenen boluntariotza-tasa** (18-29 urte), nahiz eta 65 urtetik gorakoek dituzten tasarik altuenak. Datu biak 2012an jasotakoekin bat datoz.
- 2012an legez, **ikasleen boluntariotza-tasa beste guztiak gainditzen ditu**, eta horren ondoren, langabetuena dugu.
- **Ikasketa-maila hobea dutenek** boluntario-tasa handiagoa dute. 2012ko datuek ere joera hori erakutsi zuten.

### Boluntarioen profila

- **Gizon eta emakumeen arteko oreka** (% 49 eta % 51)
- Gehienak (% 28,3) **pertsona gazteagoak** (18-29 urte) edo 40 eta 64 urte bitartekoak dira.
- **Pertsona horien erdiak Bizkaian bizi dira**, heren bat Gipuzkoan, eta ia % 15 Araban.
- **Udalerrri ertainetan** (% 44) edo euskal **hiriburuetan** (% 35,5) dute bizilekua nagusiki.
- **Landunak** (% 50) edo ez-aktiboak (% 28,1) —ikasleak kontuan izan gabe— dira bereziki.
- **Ikasketa-maila altua** dute (% 39,6k graduiko unibertsitate-ikasketak ditu).

### Borondatezko ekintzaren ezaugarriak

- Gutxi gorabehera, **10 pertsonatik 4k erakunde batean baino gehiagotan laguntzen du.**
- Gizarte-ekintzaren, arlo hiritarraren eta artearen eta kulturaren** eremuak dira jende gehien biltzen dutenak. Aldeak ikusi ditugu sexuaren arabera: emakumeek gizarte-ekintzan eta garapenerako lankidetzan esku hartzen dute gehienbat, eta gizonek, aldiz, kirolean eta enpleguan.
- Gutxi gorabehera **10 pertsonatik 4k aldizka laguntzen du.** 30 eta 65 urte bitartekoak dira aldizka gehien aritzen direnak.
- Erdiak 1 eta 5 ordu bitartean dedikatzen dio asteko,** eta inkestatutakoek 7 ordu eta 15 minutu dedikatzen dizkiote batez beste.
- 10 pertsonatik 7k zuzenean esku hartzen du** pertsona-taldeekin.
- Egiten duten borondatezko lanarekin **oso gustura daude,** batez ere emakumeen kasuan.
- Gainera, erakundeetan, **10 pertsonatik 9k ziurtatu dute laguntzen jarraituko dutela** eta % 1,7k baino ez du erabaki etorkizun hurbilean boluntarioritza uztea.

## PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUEI BURUZKO EMAITZA NAGUSIAK

### A. Erakundeetako kide izatea

- Kontsultatutako pertsonen % 38,9 erakunderen bateko kide da.** Pertsona horietako gehienak (% 30) hirugarren sektoreko erakunderen bateko kide dira, % 13,9 sindikatu edo lanbide-elkargo batekoa, % 3,2 zentro erlijioso batekoa eta % 2,3 alderdi politiko batekoa.
- 40 eta 64 urte bitarteko pertsonen** eta **Gipuzkoako** lurralde historikoan bizi direnen artean, kopuruak handiagoak dira.
- Antzeman dugu **boluntarioen artean erakundeetako kide izateko joera handiagoa dela.**

## B. Beste erakunde batzuetan aritzen diren pertsonen profila

- **Gizonak** dira nagusi (% 58,2).
- Gehienek **50 eta 64 urte** bitartean dituzte (% 32,7).
- Gehienak **Bizkaian** bizi dira (% 57,9), % 29,4 Gipuzkoan eta % 12,6 Araban.
- Batik bat **udalerrri ertainetan** (% 38,6) edo euskal **hiriburuetako** biltzen dira (% 37,5).
- Batez ere **persona landunak** (% 69) dira eta unibertsitate-ikasketak dituzte (% 46,3).

## C. Dohaintza ekonomikoak

- **Kontsultatutako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 55,4) erakunderen bati laguntza ekonomikoa eman dio** azken urtean zehar, aldizka edo une zehatzetan nahiz modu erregularrean.
- **40 eta 64 urte** bitartekoek egiten dituzte dohaintza horiek hein handiago batean. Lurraldeei so eginez, bestalde, Gipuzkoak du ehunekorik handiena (% 58,2).
- **Boluntario aritzen direnek gehiago laguntzen dute ekonomikoki**, populazioaren batezbestekoaren oso gaitetik (% 75,5).

## D. Jarduera sozial eta/edo politikoetan parte hartzea

- **Biztanleen % 69,9k kontuan hartutako zortzi jarduera sozial eta/edo politikoetako batean parte hartu du behintzat** azken urtean, eta, beraz, % 30,1ek ez du horietako batean ere parte hartu. % 47k behintzat bitan parte hartu du, eta % 7,9k bostetan edo gehiagotan.
- EAEko biztanleen % 43,2k ziurtatu du azken urtean zehar kanpainaren bat babesteko sinbolo bat jantzita eraman edo leku ikusgairaren batean jarri duela. % 35,9k esan du produktuak erosi edo erosteari utzi diola, arrazoi politikoak, etikoak, ingurumenekoak... direla medio. % 35,4k administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskaerak sinatu edo babestu ditu, arrazoi politikoak, etikoak, ingurumenekoak... tarteko. % 27,2 manifestaldiren edo kontzentrazioren batera bertaratu da. % 12,3k odola eman edo osasunaren arloko dohaintzaren bat egin du. % 12,1ek iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adierazi ditu hedabideren batean, % 10,3k grebaren batean parte hartu du, eta azkenik, % 2,2k azken urtean zehar pertsonak hartu ditu etxean.
- **50 urtetik beherakoak partaidetza-indize handiagoa dute**, jarduera horiei dagokienez. Horrez gain, **badirudi erakunderen batean boluntario aritzeak parte hartzeko joera handitzen duela** (% 89,5).

#### E. Komunitatean jarduera ludikoak, kiroletakoak, kulturalak eta/edo hiritarrak antolatzen parte hartzea

- **EAEko biztanleen % 24,3k jarduera ludiko, kultural, kiroletako edo hiritar batean parte hartu du**, haren herrian, auzoan edo udalerrian. Gehienek (% 22,5) jarduera ludikoetan, kulturaletan eta/edo kiroletakoetan parte hartu du. Horrez gain, % 7,2k jarduera hiritarretan esku hartu du.
- **Gizonek** gehiago parte hartzen dute jarduera horietan emakumeek baino. Adinaren arabera, jarduera ludikoetan, kulturaletan eta/edo kiroletakoetan aritzen direnek **profil gazteagoa** dute, 18 eta 29 urte bitartean, alegia. Jarduera hiritarren kasuan, 40-49 urtekoek pisu handiagoa dute.
- Jarduera mota bietan, partaidetza-tasa **nabarmen handiagoa da boluntario direnen artean** (% 64)

#### F. Beste etxe batzuei laguntzea

- **% 13,4k laguntza motaren bat eman ohi die** haren familiakoak ez diren pertsonei.
- Laguntza motarik ohikoenak hirugarren pertsonak zaintzea eta zereginetan laguntzea eta bisitak egitea dira (% 4,3 eta % 4,2, hurrenez hurren). Halaber, % 3,5ek aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzeko aholkua eman ohi du, % 3,1ek etxeko lanekin lotutako gaietan laguntzen du, % 2,7k laguntza ekonomikoa ematen du eta % 2,3k etxeko gauzak konpontzen laguntzen du.
- **Emakumeek, 30 eta 49 urte** bitartekoek eta **65 urtetik gorakoek** eta **Gipuzkoan** bizi direnek gehiago parte hartzen dute laguntza mota horietan.
- Eremu honetan ere, **boluntario direnek laguntza mota horiek emateko joera zertxobait handiagoa dute.**

## 6. BIBLIOGRAFIA

CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3195. zenbakidun azterlana. 2017KO AZAROKO BAROMETROA. Hemen eskuragarri: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3180\\_3199/3195/es3195mar.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3180_3199/3195/es3195mar.pdf)

CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 2864. zenbakidun azterlana. 2011ko martxoko barometroa. Hemen eskuragarri: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2860\\_2879/2864/Es2864.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2860_2879/2864/Es2864.pdf)

CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3080. zenbakidun azterlana. 2015eko apirileko barometroa. Hemen eskuragarri: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3080\\_3099/3080/es3080mar.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3080_3099/3080/es3080mar.pdf)

EUROPAKO BATZORDEA. Europako Parlamentuaren Eurobarometro Berezia, 75.2. Boluntarioak. Brusela: Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia, 2011. Hemen eskuragarri: [http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2011/juillet/04\\_07/eb%2075\\_2\\_%20synt\\_hese%20analytique%20benevolat\\_es.pdf](http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2011/juillet/04_07/eb%2075_2_%20synt_hese%20analytique%20benevolat_es.pdf)

EUROPAKO BATZORDEA. TNS Political & Social. 373. Flash Eurobarometroa. *Demokrazia parte-hartzailearekiko konpromisoa*. Brusela: Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia, 2013. Hemen eskuragarri: <http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/FLASH/surveyKy/1118>

ESPAINIA. 45/2015 Legea, ekainaren 14koa, Boluntariotzarena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2015ko abenduak 15, 247. zenbakia, 95 768. orrialdea.

EUSKADI. 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herri Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko uztailaren 13koa.

EDE FUNDAZIOA. EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak, 2012 Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012. Hemen eskuragarri: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado\\_en\\_euskadi/es\\_situgene/adjuntos/Estudio%20sobre%20voluntariado%20en%20la%20CAPV\\_cast.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado_en_euskadi/es_situgene/adjuntos/Estudio%20sobre%20voluntariado%20en%20la%20CAPV_cast.pdf)

EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA. PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. 58. Euskal Soziometroa. Kultura Demokratikoa. Ekaina 2015. Hemen eskuragarri: [http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro\\_vasco\\_58/es\\_def/adjuntos/15sv58.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_58/es_def/adjuntos/15sv58.pdf)

ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. Ekintza boluntarioa 2017 urtean. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2017. Hemen eskuragarri: <http://www.plataformavoluntariado.org/noticias/4088/Nuevos/datos/sobre/el/voluntariado/en/2017>

ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. Ekintza boluntarioa 2016 urtean. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2016. Hemen eskuragarri: <http://www.plataformavoluntariado.org/ARCHIVO/documentos/recursos/solidaridad-y-juventud-en-espana-la-accion-voluntaria-en-2016.pdf>

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2015. Hemen eskuragarri: [http://www.3sbizkaia.org/archivos/documentos/enlaces/1823\\_1\\_libroblancotsseuskadi2015.pdf](http://www.3sbizkaia.org/archivos/documentos/enlaces/1823_1_libroblancotsseuskadi2015.pdf)

LANAREN NAZIOARTEKO BULEGOA. ESTATISTIKA SAILA. Borondatezko lana neurtzeko gidaliburua. Geneva: Lanaren Nazioarteko Bulegoa, 2011. Hemen eskuragarri: [http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms\\_167833.pdf](http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_167833.pdf)

# ERANSKINAK

## GALDEKETA

Egun/Arratsalde on:

Eusko Jaurlearitzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saitetik deitzen dizut. **Azterlan bat jarri dugu martxan, informazioa jasotzeko Euskadin boluntario aritzen direnen eta bestelako partaidetza sozialeko moduetan parte hartzen dutenen bolumenari buruz<sup>45</sup>**. Arren, gai horri buruzko galdera batzuei erantzungo zenieke? Minutu batzuk baino ez dira izango.

Horrez gain, jakinarazten dizkizut **inkesta anonimoa** dela, eta Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraikiz, inkestan ematen dituzun datu pertsonalak azterlan honetarako baino ez direla erabiliko.

### GUZTIONTZAT: PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

#### 1.G. Sexua:

*Jaso galderarik egin gabe*

Gizona	1
Emakumea	2

#### 2.G. Zenbat urte dituzu? \_\_\_\_\_ (urte)

18 urtetik behera	1
18-30 urte	2
31-45 urte	3
45-65 urte	4
65 baino gehiago	5

*Inkestaren amaiera*

#### 3.G. Zer udalerritan bizi zara?

\_\_\_\_\_

#### 4.G. Zer probintzian jaio zinen? \_\_\_\_\_

Araba	1	Gipuzkoa	3	Atzerritarra da	5
Bizkaia	2	Estatukoa	4	Adierazi herrialdea	

#### 5.G. Zer ikasketa-maila duzu? *Amaitutako ikasketak izan behar dira*

Ikasketarik ez	1
Lehen hezkuntza (OHO, Oinarrizko batxilergoa, Lehen hezkuntza)	2
Bigarren hezkuntza (DBH, Goi-mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI)	3
Lanbide-heziketa	4
Unibertsitate-ikasketak (gradu-ikasketak, diploma, lizentzia, doktoretza)	5
Beste batzuk. Adierazi zein _____	6

#### 6.G. Gaur egun, noekin bizi zara? *Galdera irekia egin, eta, ondoren, bizikidetz-unitatearen arabera sailkatu, kategoria hauek kontuan izanik:*

Bakarrik	1
Familiakoak ez diren beste pertsona batzuekin (lagunak, etxekideak...)	2
Familia-nukleoa: bikotearekin, seme-alabarik gabe	3
Familia-nukleoa: bikotea eta seme-alabak; inkestatua seme-alabetako bat da	4
Familia-nukleoa: bikotea eta seme-alabak; inkestatua gurasoetako bat da	5
Familia-nukleoa: ama edo aita eta seme-alabak; inkestatua seme-alabetako bat da	6
Familia-nukleoa: ama edo aita eta seme-alabak; inkestatua ama edo aita da	7
Familia-nukleo zabala (beste senide batzuk ari dira familia-nukleoarekin bizitzen)	8
Beste bat, zein? _____	9



**7.G. Zer lan-egoera duzu (jarduera nagusia)?**

Besteren konturako langileak	1	8. galderara pasa
Beren konturako langileak (autonomoak)	2	8. galderara pasa
Langabetua (lana bilatzen)	3	9. galderara pasa
Ikasten	4	
Ez-aktibo ( <i>Ez-aktibotzat hartzen dira 16 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak, etxeko lanak egiten dituztenak, lanerako desgaituta daudenak, aurretik erretiratuak, lana bilatzen ez dutenak, etab.</i> )	5	
Beste batzuk (EEE, ...). Adierazi zein _____	6	

**8.G. [7. galderaren 1. eta 2. kat.] Zer jardunaldi mota duzu?**

Lanaldi osoa	1
Lanaldi partziala	2
Beste batzuk: lanaldi-murrizketa...	3

## BOLUNTARIOTZARI ETA PARTAIDETZA SOZIALARI BURUZKO GALDERAK

### A) BOLUNTARIOTZA ANTOLATUARI BURUZKO GALDEREN BLOKEA

Ondoren, erakunde desberdinetan boluntario izateari dedikatzen diozun denborari buruzko zenbait galdera egingo dizkizut. Lehenik, **AZKEN URTEARI** buruzko datuak nahiko nituzke...

9.G. Boluntario izan zara irabazi-asmorik gabeko erakunderen batean? <sup>46</sup>	Bai	1
	Azken urtean ez, baina lehenago bai	2
	Ez	3

	10.G. Eta beste erakunde batzuetan, bestelako erakunderen batean borondatezko lan ordaindu gabea egin duzu AZKEN URTEAN ZEHAR (hau da, zentro erlijiosoak, sindikatuak, lanbide-elkargoak, alderdi politikoak...)?		
	Bai	Azken urtean ez, baina lehenago bai	Ez
a) Zentro erlijiosoa (parrokia, meskitak...)	1	2	3
b) Sindikatuak, lanbide-elkarteak/elkargoak, enpresa-elkarteak	1	2	3
c) Alderdi politikoak	1	2	3

### A.1) INOIZ EZ BOLUNTARIO IZAN EZ DIRENENTZAKO EDO BOLUNTARIO IZAN ZIREN ETA GAUR EGUN EZ DIRENENTZAKO GALDERAK

**11.G. EGUN BOLUNTARIO EZ DIREN BAINA IRAGANEAN IZAN ZIRENENTZAT SOILIK Zergatik utzi zenion boluntario izateari? Zer arrazoi izan zenuen borondatezko lana uzteko? Galdera irekia. Erantzunak jasoko ditugu, eta gero, ixten saiatuko gara.**

**12.G. Etorkizun hurbilean erakunderen batean boluntario aritzeko asmorik baduzu? Zer aukera daude etorkizunean boluntario izan zaitezene?**

Aukera asko	1	22. galderara pasa
Aukera nahiko	2	
Aukera gutxi	3	13. galderara pasa
Batere aukerarik ez	4	

**13.G. Zergatik ez?** Galdera irekia. Jaso erantzuna.

--- Jarraitu 22. galderan ---

<sup>46</sup> Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarte batean derrigorrezkoa ez den lan ordaindu gabea egiteari dedikatutako **denboraz** ari gara

## A.2) AIPATUTAKO ERAKUNDEETAKO BATEAN BEHINTZAT BOLUNTARIO ARITZEN DIRENTZAKO GALDERAK

### 14.G. Erakunderen batean baino gehiagotan aritzen zara?

Bai.	1
Ez	2

### 15.G. [9. galderaren 1. kategoria ] IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDE batean aritzen bada Zer arlokoa da boluntario aritzen zaren erakundea? Erantzun bakarra aukeratu behar da. Erakunde batean baino gehiagotan aritzen bazara, denbora gehien dedikatzen diozun hori adierazi

Garapenerako nazioarteko lankidetzak (GGKE)	1
Arlo hiritarra (bizilagun-elkarteak, emakume-elkarteak, erretiratuak, etorkinak, gay eta lesbianak...)	2
Artistikoa eta kulturala (euskara, folklorea... barne)	3
Enplegua (lana sustatzea...)	4
Gizarte-ekintza (bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, minusbaliatuak, buru-gaixotasunak dituztenak...)	5
Ingurumena	6
Aisia eta denbora libre (gazteak, denbora libreko elkarteak)	7
Osasuna (mendekotasunak, drogazaletasuna, gaixotasun arraroak...)	8
Giza eskubideak	9
Kirola	10
Beste batzuk (adierazi zein) _____	11
ED/EE	0

### 16.G. Zergatik aukeratu zenuen erakunde hori? Zer arrazoi izan zenuen erakunde hori aukeratzeko boluntario aritzeko? Galdera irekia. Erantzunak jasoko ditugu, eta gero, ixten saiatuko gara.

### 17.G. Zer lan mota egiten duzu erakundeetan? Erakunde batean baino gehiagotan boluntario aritzen bazara, kontuan hartu denbora gehien dedikatzen diozu erakundea

Erakundearen jarduera zehaztetan edo aldizkakoetan parte hartzen du (ALDIZKA EDO NOIZEAN BEHIN) (ohikoak edo erregularrak ez diren lanak, une zehaztetan boluntarioak behar badira...)	1
Erakundearen ohiko jardueretan parte hartzen du (OHIKOA EDO JARRAITUA) (elkarteak antolatzen dituen ohiko jardueretan, maiztasunez eta ez soilik une zehaztetan...)	2
Beste bat, zein? _____	3

### 18.G. OHIKO BOLUNTARIOEI soilik Gutxi gorabehera, zenbat ordu dedikatzen dizkiozu erakundeetan borondatezko lana egiteari ASTEAN? \_\_\_\_\_

Galdera irekia egin, eta, gero, sailkatu unitate berean (orduak: 1, 1,25, 1,5, 1,75) eta tarte itxietan:

Astean ordubete baino gutxiago	1	Astean 10 ordutik gora eta 15 orduraino	4
Astean 1 eta 5 ordu bitartean	2	Astean 15 ordutik gora eta 20 orduraino	5
Astean 5 ordutik gora eta 10 orduraino	3	20 ordutik gora	6

### 19.G. Zer lan mota egin ohi duzu erakundeetan? Aukera bakarra hautatu, ohikoena.

Kudeaketa eta administrazioa (erakundearen kudeaketarekin, sostengiarekin edo laguntza	1
----------------------------------------------------------------------------------------	---

teknikoarekin lotutako lanak egiten ditu batik bat; hau da, taldeekin zuzenean esku hartzea behar ez duten zereginak)	
Zuzeneko esku-hartzeak (haren zeregina da zuzeneko arreta ematea eta pertsonekin edo taldeekin esku hartzea)	2
Mantentze-lanak (mantentze-lanekin lotutako zereginak egiten ditu gehienbat, hala nola instalazioak, ekipamendu informatikoak...)	3
Kudeaketa eta administrazioa zein zuzeneko esku-hartzea (ezin du bat ala beste aukeratu, biak proportzio berean egiten dituelako)	4
Beste zeregin mota batzuk. Adierazi zein _____	5

**20.G. 0 eta 10 bitarteko eskala batean, zenbateraino pozik zaude erakundearen egiten duzun lanarekin? 0 batere pozik da, eta 10 oso pozik.**

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Batere pozik			Ez dago pozik		Berdin zaio	Pozik		Oso pozik		

**21.G. Etorkizunera begira, esaldi hauetako zein dator bat boluntario gisa dituzun asmoekin? Erantzun bakarra hautatu.**

Datozen urteotan, boluntario izaten jarraituko dut	1
Batzuetan, boluntario izateari uztea pentsatzen dut	2
Ziurrenik, boluntario izateari utziko diot laster	3

## B) BESTE PARTAIDETZA SOZIALERAKO MOTA BATZUEI BURUZKO GALDEREN BLOKEA

**Orain arte gizarte-erakundeetan duzun inplikazioari buruz galdetu dizut (irabazi-asmorik gabeko erakundeak, sindikatuak edo alderdi politikoak). Ondorengo galderak burutu daitezkeen partaidetza sozialeko beste modu batzuei buruzkoak dira.**

**22.G. Zenbait jarduera aipatuko ditut. Arren, esan AZKEN URTEAN zehar horietako bakoitza egin duzun ala ez:**

	Bai	Ez
a) Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta.	1	2
b) Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea ( <i>banderak balkoietan, profil-irudia sare sozialetan, etab.</i> )	1	2
c) Manifestaldietan edo kontzentrazioetan parte hartzea	1	2
d) Grebetan parte hartzea	1	2
e) Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak, ordainik jaso gabe	1	2
f) Etxean pertsonak hartzea (Txernobyngo haurrak, errefuxiatuak...)	1	2
g) Hedabideren batean iritzi politikoak eta/edo eduki sozialekoak adieraztea ( <i>Hau da, zure sare sozialetan, blog pertsonaletan, zuzendariei bideratutako gutunetan, etab. informazio politikoa eta soziala ematea</i> )	1	2

**23.G. [22. galderaren 21 kategoria] Zer bide erabili zenuen iritzi horiek adierazteko?**

Internet (sare sozialak, blog pertsonalak...)	1
Inprimatutako hedabideak (egunkaria, aldizkariak...)	2
Biak	3
Ez dut gogoratzen	4

	BAI	EZ
h) administrazio publikoei edo enpresei zuzendutako eskakizunak sinatzea edo babestea, arrazoi politikoak, etikoak edo ingurumenekoak tarteko (Hau da, eskakizunak sortzea edo	1	2

sinatzea, horiek online, aurrez aurre, ohiko postaz, sare sozialetan edo bestelakoetan izan)		
----------------------------------------------------------------------------------------------	--	--

**24.G. Nola gauzatu zen sinadura jasotzeko/eskatzeko ekintza edo eskaera?**

Aurrez aurre	1
Internet bidez	2
Biak	3
Ez dut gogoratzen	4

**25.G. AZKEN URTEAN, erakunderen bateko izan zara edo zara gaur egun? Erakunderen bateko bazkide edo afiliatu zara edo izan zara?**<sup>47</sup>

	BAI	EZ
a) Irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundea	1	2
b) Zentro erlijiosoa (parrokia, meskita...)	1	2
c) Sindikatuak, lanbide-elkargoak edo enpresa-elkarteak	1	2
d) Alderdi politikoak	1	2

**26a.G. AZKEN URTEAN, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteren bati laguntza ekonomikoa eman diozu?**

	BAI	EZ
a) Irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundea	1	2

**27a.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?**

Ohikotasunez (hainbatean lagundu dut)	1
Aldizka (noizean behin laguntzen dut, uneren batean)	2

**26b.G. Zentro erlijiosoren bati laguntza ekonomikoa eman diozu (parrokia, meskita...)?**

	BAI	EZ
b) Zentro erlijiosoa (parrokia, meskita...)	1	2

**27b.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?**

Ohikotasunez (hainbatean lagundu dut)	1
Aldizka (noizean behin laguntzen dut, uneren batean)	2

**26c.G. Sindikatu, lanbide-elkargo edo enpresa-elkarteren bati ekonomikoki lagundu diozu?**

	BAI	EZ
25c) Sindikatuak, lanbide-elkargoak edo enpresa-elkarteak	1	2

**27c.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?**

Ohikotasunez (hainbatean lagundu dut)	1
Aldizka (noizean behin laguntzen dut, uneren batean)	2

**26d.G. Alderdi politikoren bat ekonomikoki lagundu diozu?**

	BAI	EZ
d) Alderdi politikoak	1	2

**27d.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?**

Ohikotasunez (hainbatean lagundu dut)	1
Aldizka (noizean behin laguntzen dut, uneren batean)	2

<sup>47</sup> Erakundearen kuota ordaintzeaz ari gara, hau da, erakundeko kide izateaz ("izen-emanda egotea").

**28.G. AZKEN URTEAN ZEHAR, laguntzarik eman duzu zure komunitatean jardueretako hauetako bat antolatzen? (bizi zaren herriaz, auzoaz edo udalerriaz ari gara).**

	Bai	Ez
b) Auzoan/herrian/udalerrian antolatutako jarduera <b>ludikoak, kiroletakoak eta/edo kulturalak</b> , <i>besteak beste: futbol-talde bat entrenatzea edo egiten diren bestelako kirol-jarduerak; egun seinalatueta momentu berezietan parte hartzea, hala nola auzoko jaiak, Olentzeroa eta san joan jaia; jarduera antolatu batean monitore aritzea...</i>	1	2
c) Jarduera <b>hiritarrak</b> auzoan/herrian/udalerrian, <i>esaterako: auzolana, administrazioak sustatutako partaidetza-prozesuak (barruti-kontseiluak, kasu), larrialdietan laguntzea, babes zibila, ekitaldi handiak...</i>	1	2

**c) ELKARTASUN INFORMALARI BURUZKO GALDERAK**

**Amaitzeko, bestelako elkartasun-ekintzetan zer-nolako partaidetza izan duzun jakin nahiko genuke. Zehazki, familiakoak ez diren pertsoneri borondatez emandako laguntzaz ari gara.**

**29.G. Horretarako, beste pertsoneri eman ahal zaizkien hainbat laguntza mota aipatuko ditut. Arren, adierazi AZKEN URTEAN ZEHAR laguntza horietakoren bat eman duzun eta nori lagundu diozun. Gogoratu familiakoak ez diren pertsoneri buruz ari garela (auzokideak, lagunak, etab.)**

	Bai	Ez	Nori?
a) Etxeko lanetan laguntzea (arropa garbitzea, janaria prestatzea, lisatzea, jostea, etab.)	1	2	
b) Hirugarren bat zaintzen laguntzea, besteak beste: adinekoak, adingabeak (esaterako, gaixorik dauden haurrak zaintzea gurasoak lanera joan behar direnean), maskotak zaintzea (adibidez, bidaiaren bat egin behar denean), etab.	1	2	
c) Jardueretan laguntzea eta bisita egitea, adibidez: erosketak edo izapideren bat (bankuan, administrazioan...) egiten laguntzea, medikuarenera joatea, pertsonen garraioa, etab.)	1	2	
d) Etxeko gauzak konpontzen laguntzea (tantak isurtzen dituen txorrota, zarata egiten duen ate bat... konpontzea)	1	2	
e) Laguntza ekonomiko partikularrei (dirua mailegatzea)	1	2	
Aholkularitza eta/edo aholku profesionala edo etxea kudeatzeari buruzkoa (aholkularitza juridikoa edo ekonomikoa, fakturak kudeatzea, etab.)	1	2	
g) Beste laguntza batzuk. Zeintzuk:	1	2	

*Ez badu laguntza informalik ematen, AMAITU INKESTA  
Eskerrik asko parte hartzeagatik!*

**30.G. Nola deskribatuko zenuke eman duzun laguntza hori? Erantzun bakarra hautatu. Hainbat aukera egon daitezke; esaterako, noizean behin laguntza mota bat ematen du, baina ohikotasunez beste bat. Laguntzaren bat ohikotasunez ematen duenean, aukera hori markatu.**

Une jakinetan emandako laguntzak dira (ALDIZKA EDO NOIZEAN BEHIN) (une jakin batean beharra sortu da, ez da ohikoa, premiazko egoerak edo egoera zehatzak dira...)	1
Eman ohi duen laguntza bat da (OHIKOA EDO JARRAITUA) (maiztasunez egiten du; ez da behar zehatz bat ohiko gauza baizik)	2
Beste bat, zein? _____	3

**31.G. OHIKOTASUNEZ EGITEN BADU soilik Laguntza horiei emandako denbora kalkulatu beharko bazenu... zenbat ordu ematen dituzu ASTEAN gutxi gorabehera? \_\_\_\_\_**

Astean ordubete baino gutxiago	1	Astean 10 ordutik gora eta 15 orduraino	4
Astean 1 eta 5 ordu bitartean	2	Astean 15 ordutik gora eta 20 orduraino	5
Astean 5 ordutik gora eta 10 orduraino	3	20 ordutik gora	6

**Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

## UNIBERTSOA ETA LAGINA: TAULAK

### AZTERTUTAKO UNIBERTSOAREN BANAKETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.

		POPULAZIOA, 18 urte edo gehiago (unibertsoa)	%	GIZONAK, 18 urte edo gehiago (unibertsoa)	%	EMAKUMEAK, 18 urte edo gehiago (unibertsoa)	%
EAE	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.811.695</b>	<b>100</b>	<b>870.418</b>	<b>% 48</b>	<b>941.277</b>	<b>% 52</b>
ADINA	18-29 urte	228.406	13	116.010	13	112.396	12
	30-39 urte	303.745	17	153.898	18	149.847	16
	40-49 urte	353.031	19	179.165	21	173.866	18
	50-64 urte	461.339	25	224.725	26	236.614	25
	> 64 urte	465.174	26	196.620	23	268.554	29
LURRALDE HISTORIKOA	ARABA	266.103	15	130.116	48,9	135.987	51,1
	BIZKAIA	958.798	53	456.198	47,6	502.600	52,4
	GIPUZKOA	586.794	32	284.104	48,4	302.690	51,6
UDALERRIA	<10.000	345.109	19	173.056	20,3	172.053	18,6
	10.000 eta 120.000 bitartean	798.607	45	383.489	45,0	415.118	44,9
	HIRIBURUA	632.142	36	295.371	34,7	336.771	36,4
	Guztira	1.775.858	100	851.916	100,0	923.942	100,0

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria jaiotza-urtearen arabera, lurralde historikoari eta sexuari erreparatuta. 2016/01/01

Udalerrien tamainari buruzko iturria: Bizkaiko biztanleria, sexuaren, adin-tarteen eta nazionalitatearen arabera. 2016/01/01. 19 urtetik gorako biztanleria.

### AZTERTUTAKO LAGINAREN BANAKETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.

		POPULAZIOA, 18 urte edo gehiago (lagina)	%	GIZONAK, 18 urte edo gehiago (lagina)	%	EMAKUMEAK, 18 urte edo gehiago (lagina)	%
EAE	<b>GUZTIRA</b>	<b>1650</b>	<b>100</b>	<b>688</b>	<b>42</b>	<b>962</b>	<b>58</b>
ADINA	18-29 urte	116	7,0	51	7,4	65	6,8
	30-39 urte	183	11,1	65	9,4	118	12,3
	40-49 urte	382	23,2	142	20,6	240	24,9
	50-64 urte	475	28,8	217	31,5	258	26,8
	> 64 urte	494	29,9	213	31,0	281	29,2
LURRALDE HISTORIKOA	ARABA	261	16	94	13,7	167	17,4
	BIZKAIA	990	60	446	64,8	544	56,5
	GIPUZKOA	399	24	148	21,5	251	26,1
UDALERRIA	<10.000	307	19	122	17,7	185	19,2
	10.000 eta 120.000 bitartean	703	43	304	44,2	399	41,5
	HIRIBURUA	640	39	262	38,1	378	39,3



**LAGINAREN BANAKETA ETA ERROREA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.**

		POPULAZIOA, 18 urte edo gehiago (lagina)	%	Laginaren errorea, % 95 konfiantza-mailarekin
EAE	<b>GUZTIRA</b>	<b>1650</b>	<b>100</b>	<b>2,41</b>
SEXUA	Gizonak	688	42	3,73
	Emakumeak	962	58	3,16
ADINA	18-29 urte	116	7,0	9,1
	30-39 urte	183	11,1	7,24
	40-49 urte	382	23,2	5,01
	50-64 urte	475	28,8	4,49
	> 64 urte	494	29,9	4,41
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	261	16	6,06
	Bizkaia	990	60	3,32
	Gipuzkoa	399	24	4,24
UDALERRIA	< 10.000 biz.	307	19	5,59
	10.000 -120.000 biz.	703	43	3,6
	Hiriburua	640	39	3,87

**FAKTORE GORATZAIILEEN KALKULUA, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. POPULAZIOA/LAGINAREN POPULAZIOA**

		18-29	30-39	40-49	50-64	> 64
ARABA	<b>Gizona</b>	2465	2432	761	1486	1497
	<b>Emakumea</b>	1876	790	371	1096	1313
BIZKAIA	<b>Gizona</b>	1867	1710	1662	812	632
	<b>Emakumea</b>	1354	1824	1035	788	706
GIPUZKOA	<b>Gizona</b>	3252	6149	1174	1515	2149
	<b>Emakumea</b>	2870	1061	689	1153	1849

Txostenaren egilea:

**edefundazioa**